



Pornografiatik harago

Haur eta gazteen jakinmina asetzeko "kalitatezko" sexu heziketa aldarrikatzen dute sexologok / 2-3



Jaiotzen erakusketa ikusgarria prestatu du atzera ere Sakanako belenzaleen elkarteak / 12

Sakanak zaintzaren aldeko ituna izanen du astearteko sinadura ekitaldiaren ondoren / 7

Herri galdeketa eginda, Lakuntzako Udalak estalpea egiteko dirulaguntza eskatuko du / 9

Olazti Natura taldeak herri guztietan hontzendako kafiak jartzeko laguntza behar du / 6

ZUTABEAK



Maialen Larrazak eta Irati Igoak Sakanako Pala Txapelketako finaleko txartela lortu nahi dute / 24

Triku Trail taldea, Etxarri Aranazko Gazte Trailarekin eta Txakurkrosarekin kontentu / 26-27

'Astoaren putza!' liburua kaleratu dute Garazi Otsagabia eta Iker Uribe lakuntzarrek / 30-31



Sexu heziketaren garrantzia

Sakanako Mankomunitateak 'Haur eta gazteak, pornografiaren aurrean nola esku hartu' hitzaldia antolatu du, gaur, Irurtzunen. Besteak beste, "jakinminagatik eta eskuragarritasunagatik" jotzen dutela esan du Ana Martinez de Ocariz sexologoak

Erkuden Ruiz Barroso SAKANA

Azaroaren 25 Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira Sakanako Mankomunitateko Berdintasun zerbitzuak Emaize elkarteke Ana Ortiz Ballesterosen *Haurrak eta gazteak, pornografiaren aurrean nola esku hartu* irakasle, guraso, hezitzaile eta gazteen bidelagunei bideratutako hitzaldia antolatu du. Bi saio prestatu zituen, lehenengo azaroaren 20an izan zen, Arbizun, eta bigarrena gaur, abenduak 15, ostirala, 17:30ean, izanen da, Irurtzungo kultur etxean, gaztelaniaz. Aro digitalekin pornografia eskuragarriagoa bihurtu da, eta bere hedapenak eta kontsumo goiztiarrak zalantzak sortzen ditu erotikaren eta gorputzaren pertzepzioan, maskulinitateari eta feminitateari buruzko gogoetetan eta helduaroko harreman intimoen garapenean duen eraginean. "Horregatik, ezinbestekoa da sexualitatea eta erotika modu integralean landuko dituzten hezkuntza kontrapisuak egotea. Giza sexualitatearen alderdi guztiak sakonago ulertzea".

Ana Martinez de Ocariz Sorolla Emaize sexologia zentroko sexologia da, eta Internetaren bidez eskuragarriago eta gehiago zabaldu den arren, pornografia ez dela gaur egungo kontua esan du. Duela urte "pila bat" existitzen da, "bi mila urte baino gehiago ere; erromatarrek baino lehena-

go. Duela zenbait egun Napolin egon nintzen eta oso bitxiak dira Ponpeian agertu ziren irudi erotikoa". Pornografia beti egon da: "Gaztetxo eta gaztetxo ez diren artean beti egon da interesa material horretan". Internetekin, aldiz, ikusgarritasuna gehiago zabaldu da; "une honetan gertatu den fenomeno bereiztu behar dugu eta interes hori aintzat hartu behar dugu. Zergatik jotzen dute nerabeek pornografiara?".

Fenomeno berria da pornografia "eskuetan" dutela eta, ondorioz ere, batzuetan bila joaten dira eta beste batzuetan "nahi gabe" jasotzen dute. "Kontua da ere eskutara iristen zaiena eta jasotzen dutena porno *mainstream* eta kutrea dela, eta hortik jaso ditzaketan ideiak ez dira jaso behar dituztenak. Sexualitatea edo erotika ez da pornografia horretan



"GAZTETXOAK ENTZUN BEHAR DITUGU, JAKIN ZERGATIK JOTZEN DUTEN PORNORA"
ANA MARTINEZ DE OCARIZ

agertzen". Pornografiaren barruan eredu desberdinak daudela bereiztea garrantzitsua dela esan du sexologoak, "eta nerabeek ikusten dutena ez da egokiena, horregatik zerbait egin behar da, baina debekatzea ez da bidea. Beste alde batetik, ezinezkoa baita".

Baina zer ulertzen da pornografia bezala? "Guk ulertzen dugu edozein material eszitatzeko baliagarria dena. Zer gertatzen da? Orain ez dutela horretarako bakarrik erabiltzen". Gaur egun gazteek pornografiara jotzen dute "jakinmina" dutelako, "ikasteko", baita sozializatorako ere. "Horregatik bilatzen dute, jakinmina dutelako. Horrek esan nahi du helduok ez garela ongi egiten ari, ez dugu erotikaz informazioa ongi sozializatzen; nola bizi dezakegun erotika. Iturri hurbilena eta errazena hori dute, eta dohainik".

Ikasten

Sexua, sexualitatea, erotika, plazerra eta abarrez hitz egitea tabua da, eta sexu heziketa "oso urria eta kalitate gutxikoa da". Martinez de Ocariz azaldu duenez, helduek ez dute haurrekin eta gazteekin "dimentsio erotikoz" hitz egiten: "Beraien desioekin konektatzea, beraien fantasiekin, zer espero duten besteengandik, harreman sexualak izatea, abilezia sozialak, nola planteatu harremanak, nola ikasi zer desiratzen duten, zer gustatzen zaien...". Hortaz, kanpoan ikusten dutena barneratzen joaten

badira, "ez dugu lekua uzten gure desioak, barnetik duguna, esploratzeko, hitz egiteko eta lantzeko". Landu beharreko zerbait dela gogoratu du sexologoak. "Beste modu batez, ez pornografiaren bidez; baina ezin zaio ardura guztia pornografiari bota".

Pornografia "deabrutzearen" estrategiaren kontra daude. "Emakundek Azaroaren 25erako kanpaina nahiko indartsua egin zuen eta, laburbilduz, pornografia biolentzia matxistaren arrazoia dela esaten zuen: 'Ez genuke sexu heziketa pornoaren esku utzi behar' zioen lema; eta gero oso oso letra txikian: 'Ez dezagun gure gazteen sexu heziketan bihurtzen'. Agian alderantziz egon beharko zen". Sexu heziketaren garrantzia nabarmendu du Martinez de Ocarizek, "egin behar dugu, gure ardura da, batez ere botere publikoen esku dagoelako". Instituzioen koherentzia falta kritikatu du: "Ez dugu ulertzen nola atera duten hori. Pornografia deabrua bihurtu da, baina ez dute egiten benetan egin behar dena". Esaterako, sexu heziketa ez dute hezkuntza curriculumean txertatzen.

"Gaztetxoak entzun behar ditugu, jakin behar dugu haiek esaten dutena, zergatik jotzen duten pornografiara, zergatik konpartitzen duten, zer espero duten ikustea eta ikastea...". Erotika "landu" behar dela azpimarratu du sexologoak. "Azken aldi honetan erotofobia izugarria agertu da, eta plazerraz hitz egin behar dugu. Desioa bezala ulertuta". Pornografiak zer eta nola egin behar duten irakasten ditela esan du, "eredu erotikoa", baina ikusten duten pornografia horretan agertzen diren baloreak, "edo kontrabaloreak hobe esanda", matxismoa, kitoizentrisismoa, arrazismoa askotan, homofobia eta abar dira: "Pornografia horretan ez da aniztasun sexuala agertzen. Matxista da emakumearen papera oso pasiboa delako. Ez du paper aktiboa, bakarrik gizonari plazerra emateko agertzen da". Gazteekin horiei buruz hitz egin behar dela



www.ventanasegoki.com

Arkinoturri Industrialdea • Olazzi

GIDARIDUN LEHIO BERRIAK
Mugarik gabeko estetika moderna

Erakusketa: Olite kalea 16 • Iruñea





UTZITAKOA

esan du Martinez de Ocarizek. "Lehen esaten zen haurrak Paristik zetozela sexua tabua zelako. Orain pornografia bihurtu da tabua". Gaia lantzeko "isiltasuna" ez dela bidea gaineratu du.

Datuak

Haurrak eta gazteak eta pornografia "fenomeno sozial masibo" bat bihurtu dira. "Baina, egia esan, horrelako diskurtsoak entzuten ditugunean ez dituzte datuak ematen. Ez dakigu nondik

ateratzen duten hori". Pornografia ikusteagatik sexu erasotzaileak bihurtuko direnaren mezua "gehiegizkoa" dela uste du sexologoak: "Pelikula biolentoak edo gerraren ingurukoak ikusten badituzte hiltzaile bihurtzen ditu halaberrez? Berdina da". Eztabaida edo fenomeno "olatu ultrakontserbadoretik" sortu dela uste du sexologoak. "Nik uste horrek eragina izan duela. Feminismoan ere oraintxe bi tendentzia bezala daude, eta ez dut esan nahi ultrakontserbadoreak direla, baina erotofobia hori nonbaitetik dator".

Safe the children Gobernu Kanpoko Erakundeak 2020an Haur eta gazteen eta pornografiaren inguruko lehenengo txostena kaleratu zuen, datu kuantitatiboak emanez: espainiar estatuko 13 eta 17 urte bitarteko 1753 nerabeei pornografiaren inguruan galdetu zieten. Haietatik %62,5k noizbait pornografia ikusi zutela esan zuten eta azken 30 egunetan %68,2 zerbait ikusi zutela esan zuten. Pornografiak eduki biolentoak omen duen galdetuta gazteen %72k baietz erantzun zuten, %13,9k ezetz eta %14k ez zekiela. Bestetik, pornografiara jotzen dutenean haien espektatibak betetzen dituen galdetuta %40,7ak baietz erantzun zuten. Bestetik, %48ak esan zuen sexualitateari buruz ikasteko iturri bezala erabiltzen zutela; eta %30endako iturri bakarra zela.

Aro digitala

Telefono mugikorren erabilera "goiztiarra" eta pornografia lotuta dauden bi fenomenoak direla esan du Martinez de Ocarizek. "8 urterekin telefonoak ematen dizkiete, ia pentsatu gabe, agian ez propioa, baina erabiltzen hasten dira". Askotan kontrol parentala jarrita dutela nahikoa dela pentsatzen dutela esan du sexologoak, "baina ez dira konturatzen beste lekuetatik ager daitezkeela horrelako irudiak". Sexu heziketarekin batera heziketa digitala ere ezinbestekoa da: "familiak egin behar duten heziketa. Guk hamairu edizio daramagu sexualitate digitalak programa lantzen". Programa eragilei bideratuta dago, eta online da. "Sare sozialetan nola harremantzen garen, sortu diren lengoia berriak, sozializatorako tresna bihurtu da, Interneten sexualitatearekin eta erotikari lotutako kontu pila bat aurki daitezke... Helduok honi buruzko



Ana Ortiz sexologoa Arbizun; gaur Irurtzunen izanen da. @BERDINASUNAS

informazioa izan behar dugu, bestela gaizki gabilta". Sexualitateari lotutako "gauza interesgarri asko" daudela esan du sexologoak, "modu onean erabiltzen ikasi behar dugu helduok ere".

Guraso, familia eta hezitzaileek zer egin behar duten galdetuta: "Isiltasuna hautsi, tabutik atera, eta gazteekin honi buruz hitz egin. Baina hazkuntza jarrera batetik, ez kriminalizatzen, baizik eta aukera moduan. Ez adoktrinatzeko, baizik eta beraien hausnarketa propioak egin ditzaten". Gazteek interesa eta jakinmina dutela eta hori "asetu" behar dela kontuan hartuta, "badaude komiki erotikoak, literatura erotikoa, etxean gorputz biluziekin argazki liburu artistikoak egon daitezke... Nik uste hori oso bide ona dela". Horrelako material erotikoa "hurbil" izatea aukera ona dela esan du sexologoak. "Gogoratzen naiz nire gurasoek ni baino helduago den ahizpari liburu bat oparitu ziotela, Zer gertatzen zaigu nerabeei deitzen zen, eta gurasoek jakin gabe nik ere hartzen nuen. Lotsa dagoelako". Baina "kalitatezko material ona" eskura izatea eta haiekin horri buruz hitz egitea aukera oso ona dela gaineratu du.

"Heziketatik dator guztia. Baina, jakina, ezin diegu esan hau txarra da, horrekin ez dugulako ezer lortzen. Beraiekin hausnarketa egin behar da: zer transmititzen du ikusten duzuen horrek? Nola ikusten duzu zuk? Zer iritzi duzu? Sufritzen ari direla uste duzu?".

Debekatzea

Haur eta gazteak pornografiara eskuragarritasuna ez izateko debekatzea ez dela irtenbidea esan du Martinez de Ocarizek: "Posible da muga batzuk jartzea. Frantzia, esaterako, pasaporte

pornografikoa jarri dute. Pornografiako webgunetara sartzeko harpidetu behar zara eta izen abizenak eta NA zenbakia jarri behar dituzu; datu pertsonalak". Adin gabekoak horrelako webgunetara ez sartzeko kontrolak "beharrezkoak" direla esan du sexologoak; "hori bai egin daitekeela". Baina sexu heziketaren garrantzia azpimarratzen du: "Kalitatezko sexu heziketa. Orain gertatzen ari da jendeak sexu heziketaren inguruko ikastaroak baino pornografia lantzea eskatzen digula. Hori akats izugarria da". Pornografia sexu heziketa landu gabe ezin dela landu esan du: "Pornografia sexu heziketaren zati bat da, hor dago eta jorratu behar da, baina hori bakarrik ez da sexu heziketa". Pornografia "erruduna" bihurtu dela esan du, "eta, bai, jorratu egin behar den kontua da. Nola egiten dugun horretandagokoa. Fenomeno honen aurrean zer egin dezakegu?". Besteak beste, sexu heziketa, heziketa digitala eta gazteekin hitz egitea, "eta dimentsio erotikoa lantzea, ezinbestekoa da ere".



*Gorde zenbaki hau



ASTEKOA

RAF ATXURI

Entzun Israel

Lerrook idazten ari naizenean, Gazan 18.000 erahildako aipatzen dira, Nakba deritzanaren azken atalean, eta hondamendiz hondamendi eta gorpuz gorpu aletzen ari da Palestina edota Kanaan aldeko historia XX. eta XXI. mendeetan.

Europa kristauak Erdi Aroan zehar, tsarren Errusiak XIX. mendean eta alemaniar nazismoak joan zen mendean eragindako jazarpen, progrom eta sarraskiak ordaintzen ari dira palestinar musulman eta kristauak azken larogei urte honetan (auzia 1948tik baino lehenagotik dator), eta larrutik eta odol hustutzetik ordaintzen ari da Palestina, mundu ustez kristau, demokratiko eta humanistaren nagusien bedekapena lagun.

Urriaren 7ko triskantza basati ta doilorraren ondorioz piztu da azken oldarraldi orosuntsitzailea, eta garbi esan dezadan, judutarrak ez dira egoera genozida honen arduradunak, egungo sionista kolonizazioak baizik, eta Netanyahu bezainbat Biden, Trump, Von der Leyen, Milei edota Sunak bezalako agintari sionista ahaltsuak, txikizio hau hitzez edo armez babesten ari direnak; nonbait hauen iritzi Ukrainariek ez dago Palestinan.

BADIRA JUDUTAR HERRITARREN ARTEAN, NEURRIGABEKO SARRASKI HONEN AURREAN AHOTSA ALTXATU DUTENAK

Badira, bestalde, judutar herritarren artean, neurrigabeako sarraski honen aurrean ahotsa ozen altxatu dutenak, Jewish Voice for Peace esaterako. Elkarte honek munduko judutar komunitateei eta Israelgo gobernu eta jendarteari gazatarren eskubideen aldeko aldarria

plazaratu diete argi eta garbi, gerra beharrezko honen argudio guzti-guztiak birrinduz arrazionaltasunez eta emozioz.

Garaia du berriro ere Israelek, eta bere egungo sionismo kolonial hiltzaileak profeten esana buruaz eta bihotzaz entzuteko: *Ezpatak golde bihurtuko dituzte, eta lantzak igitai. Ez da naziorik nazioren kontra altxatuko, ez dira gehiago gudurako prestatuko* (Isaias 2, 4). *Orduan Jaun ahalguztidunak makurraraziko ditu harro, handiputz eta burutente guztiak* (Isaias 2, 12). Shema Israel.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Hamaika giza eskubide urratu eta beste hainbeste kolokan 2023. urte honetan

SAKANAKO ANITZARTEAN KULTURARTEKOTASUN ZERBITZUA

Tamalez, 2023an inoiz baino okerrago gaude. Abenduaren 10ean Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna "ospatu?" zen. Datorren astelehenean, hilak 18, Migrazioen Nazioarteko Eguna "ospatuko?" omen da. Ospatzeko ezertxo ere ez.

"Atsegin" nuke (beno, agian ez...) ustez libreki mugitzeko eskubidea, edota babesa eskatzeko eskubidea dutenen egia entzutea. Zer esango lukete Iruñeko kaleetan bizi diren jatorri anitzeko hainbat gaztek? Zaintza lanetan, baldintza kaxkarretan bizi diren hainbat emakumek? Grebarako eskubiderik ez dutenek? Zer liokete kale gorrian gelditu eta hurrekin partekatutako etxe batean bizi direnek? Gela bat alokatzeagatik 400 euro ordaindu behar dutenek? Zer bizipen ote janzkera dela eta baztertuak, sailkatuak, eta jipoituak direnak? Munduan barrena gerran dauden hainbat lurraldeetako

ERREDAKZIOAREN OHARRA

Datorren asteko GUAIXE ASTEKARIA oporren aurreko azkena izanen da, hurrengo urtarilaren 12an argitaratuko da.

bizilagunek zer lukete adierazteko?

Eta... palestinarrek? Garbiketa etniko bortitz eta krudel honek, sarraski basati honek, suntsitu ditu giza eskubide denak. Bat bera ere ez du errespetatzen. Ez da gudu bat, ez. Palestinar herriarekiko urteak daramatzen genozidioa da, potentzia askoren konplizitatearekin, eta erantzukizunarekin.

Ez dira 20.000 palestinar hilak, ez, ez dute bizitza galdu, ez. Erailak izan dira, ez du beste izenik. Argi dago garbiketa etnikoa dela, inolako eskrupulorik gabe erailten dituztelako haurrak,

emakumeak, jende heldua... Ikastetxeak erasotzen dituzte, ospitaleak... Arrazoiak berdindu, jada. Helburua palestinarrekin bukatzea da, eta kitto! Bonbak erailtzen ez badituzte ere, hotzak, goseteak, ur ezak... erailtzen dituzte; gauza bera, azken finean.

Sarraski honen aurrean, Nazioarteko Eskubidea bete dadin aldarrikatzea ezinbestekoa da. Desmond Tutu-k zioen bezala, "injustizia baten aurrean neutrala izatea, zapaltzailearen alde jartzea da". Gabiltzan erne honekin, eta eman diezaiogun egoera honi buelta, arren.

OBJEKTIBOTIK



guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhua Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZALEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

Maketatzailea:
Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



Amelia Barquin Lopez, filologia erromanikoan doktorea eta kulturarteko hezkuntzan aditua, saio batean ariko da. GOIENA

Gurasoendako trebakuntza eskola

Euskara ikasten duten haurren aita-amei zuzenduta daude Era Eskolako saioak; euskaraz eta gaztelaniaz daude, interneten. Familien interesekoak diren gaietan adituak direnek informazioa eta baliabideak ematen dituzte

SAKANA

Gurasoek hainbat erabaki hartzen dituzte seme-alaben ongizatea bermatzeko: elikadura, lotarako errutinak, praktika osasungarriak, mugak... Horietan bezala, euskara sustatzean ere gurasoek hainbat arlotan nola jokatu jakin nahi izaten dute: irakurzaletasuna bultzatzeko, eskolaz kanpoko jarduerak baliatzeko, pantailen kontsumo egokia ziurtatzeko, eskolako lanetan laguntzeko... Horretara zuzenduta daude Era Eskolan gurasoei eskaintzen zaizkien trebakuntza saioak.

Eranafarroa.eus webgunean dago gurasoendako trebakuntza eskola hori. Saioak euskaraz (*labur.eus/35IFJ*) eta gaztelaniaz (*labur.eus/SOEJc*) daude. Era Eskolako saioek interaktiboak izan nahi dute. Beraz, ikusleek kontsultarik egin nahi badute, YouTube kanaleko mintzaldien bideoetan iruzkinak egin ditzakete eta ondoko egunetan Euskarabi-

Eskaintza

Kulturarteko hezkuntza, euskara eta familien hizkuntzak

- **Hizlaria:** Amelia Barquin Lopez

Nola lortu gure haurren inguruan euskara gehiago erabil dadin?

- **Hizlaria:** Kike Amonarriz Gorria


Euskararen sustapena nerabezarorako trantsizioan

- **Hizlaria:** Nerea Permach Martin

deko edo Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuko teknikariek erantzunen dute iruzkinean bertan.

Lankidetz

Eranafarroa.eus web orria toki entitateetako euskara zerbitzuek sortutako eta Nafarroako Gobernuak Euskarabidearen bidez finantzatutako webgunea da, 12 urte bitarteko haurrak dituzten familiei laguntza eta baliabideak eskaintzen dizkiena, haurren euskararen ikas-prozesua osatzeko eta horretan laguntzeko. Eskolan euskara ikasten duten haurren familiendako guraso eskola, Era Eskola, 2020an abiarazi zuten. Haren helburua haurren gurasoei seme-alabak euskararekin motibatuzko moduak eskaintzea da.



*Gorde zenbaki hau

Euskara oparitzeko lagungarria den webgunea

Euskarazko produktuen katalogoak haur eta gazteei zuzendutako euskarazko eskaintzaren berri ematen du

SAKANA

Eguberrietan opariak egiteko ohitura dugu. Garai hauetan haur eta gazteei euskara ere oparitu daiteke, eta horretan laguntzen du *katalogoa.eus* web orriak. Bertan jasotzen baita euskaraz sortutako makina bat produkturen berri. Hara sartzen denak bi aukera ditu lehenik, haurrak (0 eta 12 urte artekoak) edo gazteak (12 eta 16 urte artekoak). Bieta-koren batean sartzen denak haur eta gazteentzako produktuak zortzi ataletan sailkatuta opatu-ko ditu: aldizkariak, musika, liburuak, komikiak, informatika, jostailu eta jokoak, filmak, eta gurasoendako materiala.

Produktuaren erreferentzia zehatza dago aipatu webgunean: produktuaren izena eta irudia, egilea, adin-tartea, argitaletxea, eta gutxi gorabeherako prezioa. Maiztasunez eguneratzen da, eta



Katalogoa sarean kontsulta daiteke.

urtean zehar argitaratzen diren produktuak kontsultatzeko aukera ematen du.

Euskal Herriko ezaugarri oso ezberdinetako hainbat herritako udalek egin dute bat euskarazko produktuak sustatzeko egitasmoan, Mank barne.



BELEIXE IRRATIAREN
ELKARRIZKETA GUZTIAK:
WWW.GUAIXE.EUS

107.3 FM
beleixe



Erleendako hotelez aparte, hontzek kafia egiteko kutxak ere jartzen ari dira. OLAZTI NATURA

Erle polinizatzaile bakartien hotelak egiten

Eskolako ikasleek enborrak margotu dituzte eta Olazti Natura taldeko kideen asmoa da haiek eguberrian muntatzea eta bakarren bat ere jartzea. Hotzak babesteko programa Burundara zabaltzeko laguntza eskatu dute taldetik

Alfredo Alvaro Igoa OLATZAGUTIA

Eskulan bereziak egin zituzten Olatzagutiko eskola publikoko 78 ikasleek abenduaren 5ean. Herriko ingurumena ezagutara zi eta zaintzen lan egiten duen Olazti Naturak jarri zien egitekoa. Moztutako hainbat enbor zati eraman zituen eskolara. Enborren alde bat zulatzeko makinarekin egindako zuloz beteta zeuden. Ikasleek brotxak hartu eta enborrak margotu zituzten. Ederki pasa zuten.

Enbor zati horiek zabalera desberdina dute eta Olazti Naturakoek plataforma baten gainean seinaka jarriko dituzte, hiru zabal oinarrian, bi estuago gainean eta bukatzeko enbor finago bat. Piramide moduko bat sortuko dute plataforma horren gainean. Hari oina jarriko diote, piramidea metro bateko altueran geldit dadin. Egitura hori da erle polinizatzaile bakartiendako hotela. Hainbat eginen dituzte, eta aurrena eguberrietan jarri nahiko lukete herrian.

Olazti Natura taldeko kide Felipe Bernardo Morok azaldu duenez, "Intsektuen Holokaustoa deritzon horretan gaude, 30 urtean biomasaren %80 desagertu da, hegaztiak eta ugaztunak baino zortzi aldiz azkarrago desagertzen dira. Erritmo horretan jarraituz gero, intsektuak desagertu egingo dira eta, ondorioz, planeta kolapsatu egingo litzateke". Egin dituzten hotel horiek "oraindik okerrago pasatzen ari diren eta fruituak lortzeko ezinbestekoak diren erle polinizatzaile bakartiendako dira", argitu du. Gaineratu duenez, herriko eskolarekin egindako aurreneko jarduera izan da, baina ez da azkena izanen: "esaterako, bertako zeharritzen ezkurak eta gaztainak eramanen dizkiegu, haiek ernamuindu ditzaten, hazkuntzan zaindu, eta, ondoren, ahal bada, landatu egingen genituzke". Jarduera horiekin ikasleek ingurumen gaitan kontzientzia hartzea nahi du Olazti Natura taldeak.

Hegaztiak

Olazti Naturaren egitasmoen artean hainbat hegazti babesteko planak daude, batzuk gero eta gutxiago ikusten direlako, batez ere gaueko hegazti harrapakariak. Hala hontzek kafia egiteko toki aproposa izateko kutxak egin eta batean eta bestean jartzen hasi dira. Hontzendako halako lau kutxa jarri dituzte dagoeneko Olatzagutian. Baina ez dira herrira mugatu eta hontzendako beste bi kutxa Ziordian eta bana Altsasun eta Iturmendin jarri dituzte. Izan ere, taldearen helburua da Sakanako herri bakoitzean behintzat hontzen kafitarako bina kutxa jartzea. Herri bakoitzean hontzendako kafi horiek non jarri daitezkeen azal-

"INTSEKTUEN HOLOKAUSTOAN GAUDE, 30 URTEAN BIOMASAREN %80 DESAGERTU DA"

tzeko eta jartzen lagundu nahi dutenek 649 513 278 telefonora hots egin dezakete. Behin hotzarenak jarri ondoren beste hegazti espezie batzuk kafia egiteko kutxak ere jarri nahi dituzte. Eta, dagoeneko, horretan hasiak dira: apo hontzendako bi eta urubiendako bat jarri baitituzte.

Bestetik, herriko natura eta biodibertsitatearen kontserbazio eta hobekuntzarako egitasmoaren barruan Olazti Naturak bi ekimen antolatu zituen. Bata, txoriei eraztuna jartzeko jardunaldia izan zen. Aditu batek azaldu zien zein pauso eman behar diren eta nola jarri behar zaion hegazti bat eraztuna. Ika-sitakoa praktikatzeko aukera izan zuten. Horretarako, adituak sare bat zabaldu zuten eta haren laguntzaren bidez 22 hegazti harrapatu zituen bizirik. Hartutako artean zeuden zozoa, birigarroa, karnaba, txepetxa, gerri txori, txinbo kaskabeltza, kaskabeltza eta txorrua. Harrapatu, pisatu, neurtu, eraztuna jarri eta askatu egin zituzten hegazti guztiak. Haurrek egin zuten azken hori, eta ederki pasa zuten.

Hegaztiak ezagutzeko ornitologia hastapen ikastaroa egin zuten irailean. Olazti Naturako taldekideen aurreikuspenak gairatu eta 30 bat pertsonen parte hartu zuten ikastaroan. Aterpeak fundazioko kideak izan ziren azalpenak eman zizkietenak olaztiarrei. Ika-sitakoarekin pozik bueltatu ziren guztiak etxera. Gogoz gelditu zirenez, azaroaren 12an ornitologiari buruzko bigarren saioa egin zuten.

Azkenik, saguzarrak ezagutzeko jardunaldia antolatu zuten udan Olazti Natura taldeak, horretarako aditu bat ekarri zuten. "Hainbat mito bertan behera gelditu ziren. Esaterako, penintsulako saguzarrek, ugaztun guztien modura, gaitz bakarra transmititu dezakete: amorrua. Eta Nafarroan ez da sekula kasurik atzeman, estatuan gutxi eta baratze saguzarrak eragindako". Hitzaldian 35 bat pertsona izan ziren. Gauean saguzarrak identifikatzeko irteera egin zuten eta 60 bat olaztiar animatu ziren. Ultrasoinuak erabilita sei saguzar espezie identifikatu zituzten (Pipistrellus pipistrellus, Pipistrellus pygmaeus, Pipistrellus kuhlii, Nyctalus leisleri eta Myotis daubentonii), baina ezin izan zuten gehiago egin euritan hasi zelako.

Objektu pila Olatzagutiko elkartasun azokarako

Azokan sakandarrak elkar ezagutzeko aukera emanen duten hainbat txoko izanen dira ere

OLATZAGUTIA

Olatzagutiko elkartasun azoka abenduaren 17an egingen da, domekan, 12:00etatik 14:00etara, herriko pilotalekuan. Sakandar guztiak azokatik pasatzera gonbidatu dituzten Joseba Vizuete alkateak, Sakana Harrera Harnako Juan Pedro Higuero eta Sakanako Mankomunitateko Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuko gizarte hezitzaile Be-goña Zestauk. Azoka jendearen topalekua bihurtuko da, "elkar ezagutzeko hainbat txoko izanen da azokan". Frontoitik pasatzen denak salmentarako postuaz aparte gauza gehiago ere opatu-ko ditu: pintxoaren txokoa, ama hizkuntzera, Elkarri Laguntza erakundearen standa, hausnartzeko txokoa eta jolaserako txokoa.

Olatziarrek elkartasun azokarako egoera onean dauden makina bat gauza eman dituztela aurreratu du Zestauk. "Oso modu onean, merke, salduko dira jasotako gauzak". Jakinarazi duenez, hainbat helburu bilatzen dituzte: "gizartean dugun kontsumoaren inguruan hausnartzea da helburuetako bat. Bestetik, egoera onean dauden gauzei bigarren biritza bat eman nahi zaie. Aldi berean, ekonomia egoera zaurgarrian dauden pertsonen elkartasuna adieraztea, eta erraztea egoera onean dauden gauzak eskuratzen".

Emandako objektuen salmentatik ateratako dirua Iruñerriko Elkarri Laguntza elkarteari emanen diote. "2008ko krisiaren ondorioz, etxe gabetze ugari izan zen eta Hipotekak Kaltetutako Plataformatik sortu zen. Gaur egun jatorri anitzeko 300 bat familia laguntzen ditu. Gainera, gazte mordo bat dago Iruñerrian etxerik eta babesik gabe. Horiek laguntzen ditu", azaldu du Zestauk. Aldi berean, gogorazi du bi erakunde arteko elkarlana aspaldikoa dela.

"Zainketan harreman desorekatuak eraiki dira"

OIHANA GALLO SAN ROMAN SAKANAKO MANKOMUNITATEKO BERDINTASUN TEKNIKARIA Nafarroako Berdintasunerako Institutuak sustatutako zainketen aldeko itunarekin bat egingen du Sakanak abenduaren 19an, asteartean

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Nafarroako Berdintasunerako Institutuak zainketen aldeko itunak sustatzen ari da herrialdean. Sakanako Mankomunitateak ituna sinatzeko eskaera 2022an egin zion. Mank-ek egin beharreko prozesuaren ondoren, *Sakanako Zaintzen aldeko ituna* sinatuko da.

Zer dira zainketen aldeko ituna?

Nafarroako Berdintasunerako Institutuak gizonezkoen eta emakumezkoen berdintasunaren aldeko politika publikoen barruan sustatutako programa bat da. Haren bidez, toki erakundeek zainketen aldeko konpromiso handiagoa hartzea bulkatzen du.

Zer dira itun horiek?

Zainketak politika publikoen erdigunean eta gizartea eta erakundeak haien inguruan konprometitzeko proposamenak eta irtenbideak diseinatu eta antolatzeko abiarazten dira. Zainketen aldeko itunak, berez, koordinatuta planifikatzeko eta esku hartzeko tresna bat dira. Zehazki, akordio multzo bat dira. Haien bidez ekintza zehatzak eta neurgarriak garatuko dira, zainketak ikustarazteko, ezagutzeko, partekatze eta berrantolatzeko.

Zein helburu ditu itunak?

Lau helburu estrategiko ditu. Aurrena, administrazioetan eta



Oihana Gallo San Roman berdintasun teknikaria. UTZITAKOIA

administrazioetatik, zainketa sustatzea. Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko egiazko berdintasunaren eraikuntzan politika publikoen ardatz nagusi gisa. Hurrena bizitzari eusteko zainketek duten balioa aitortzea. Hirugarrena, Sakanako emakumezkoen pobrezia murriztea. Eta, atzena, ibarreko enpresa eta erakundeetan berdintasunaren aldeko konpromisoa sustatzea.

Zer zaintza mota sustatzen du itunak?

Zainketen aldeko Tokiko Itunaren printzipio gidariak dira:

emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasun egiazko eta eraginkorra, unibertsalizatze progresiboa, elkarrekikotasuna, zeharkakotasuna, intersektionalitatea, parte hartzea, duintasuna, sustraiak/partaide izatea, zainketa eskubideekin eta zaintzeko eskubidea, zainketarako eskubidea aitortzea, zainketa etikaren erdigunean eta zainketaren etika, indibidualtasunetik konpromiso komunera eta erantzun gaitasuna.

Itunak administrazio arloan gelditzen dira?

Ez. Toki administrazioek sustatzen dituzte, eta bertako toki erakundeetako hainbat entitate eta erakunde publiko eta pribatuaren laguntzaz eta horiekin koordinatuta. Horrez aparte, herritarrek ere parte hartzen dute, eta badute zer esana. Jendartearekiko koordinazioa eta elkarriketa handitzea bilatzen du itunak. Izan ere, hori funtsezkoa baita bizitzaren jasangarritasunaren ikuspegitik, egiazkoa eta eraginkorra den berdintasun lortzeko.

Zergatik eman zainketei izaera politikoa?

Zainketei dagokienez, harreman desorekatuak eraiki direlako, generoa oinarritzat hartuta. Beraz, harreman desorekatu horien atzean dauden printzipio moral eta ekonomikoak ezkutatu egin izan dira. Lanaren zatikatzeak eta diruzko interakzioak ez datoz bat bizitza defendatzen duten baldintza etikoetan oinarritutako itunarekin. Horrez aparte, jendartea indibidualizatzen dute, giza praktikei eusten dieten harremanen sarea ezagutu gabe. Itunak arazo horiei buruz hobeiki hausnartzeko modua eskaintzen du: botere politikoari buruzkoak, giza interkonexioari buruzkoak eta jendarteak denboran eta bizi zikloan antolatzeke duen arazo konplexuari buruzkoak.

Nola egingen da hori?

Zainketari buruzko politika publikoak eraikitzeke, zainketa eta emakumeendako ekitate politikak ezartzeko gobernu administrazioaren ahalegin instituzionala beharrezkoa den arren, prozesua ez da burutuko herritarren eskutik egiten ez bada; hau da, jendarteko hainbat eragileren arteko, genero eta belaunaldien arteko erantzunkidetasun eta

elkarrenganako eta elkarrekiko konpromiso batetik. Horregatik, Sakanako erakunde, elkarrekin eragile guztiei ituna sinatzeko gonbidapena luzatu zaie.

Interesa duenak zer egin behar du?

Interesa duten elkarrekin edo erakundeekin Sakanako Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzua-ekin harremanetan jarri behar dute abenduaren 18a baino lehen. Horretarako, *berdintasuna@sakana-mank.eus* posta elektronikoko helbidera idatzi edo 948 464 867 telefonora zenbakira hots egin daiteke. Ituna 12:30ean sinatuko da Sakanako Mankomunitatearen egoitzan, baina aurretik, zaintzen aldeko itunen oinarriak ezagutzeko trebakuntza saioa izanen da, 10:00etatik 12:00etara.

Zaintzari buruzko jardunaldiak antolatu zenituzten irailan.

Hala da, *Sakana zaindu gertutik* jardunaldiak itun honen baitan kokatzen dira, nahiz eta sinatu aurretik egin. *Sakanako emakumezko eta gizonezkoen arteko Berdintasunerako I. Planean* dagoen esku hartzeetako bat da *Bizitzaren jasangarritasunerako itun sozial berria*, eta haren baitan kokatu genituen jardunaldiak. Zaintza lanak aitortzea eta gure ibarreko agendaren erdigunean kokatzea izan zuten helburu. Zaintzak dituen hari mutur asko landu ziren. Jardunaldiak arrakastatsuak izan ziren, 70 pertsona egon ziren. Gaiari nolabaiteko aterkia emango dion ituna sinatzea da hurrengo pausoa.

"PROZESUA EZ DA BURUTUKO HERRITARREN ESKUTIK EGITEN EZ BADA"

bertako
igogailuak | ascensores

BENETAKO OROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

IGOGAILUEN MANTENTZE-LANEN ESKAINTZA ZORROTZENA

2.500 bezerok gugan dute konfiantza

848 87 09 17
bertako.eus



Pentsiodunen mugimenduko kideek deialdiarekin bat egin dute.

Israelek genozidioa gelditzeko eskatuko dute

Sakana Harrera Harana plataformak deituta Palestinari elkartzasuna adierazteko eta Israelek "genozidioa gelditzea" eskatzeko manifestazioa egingen da Altsasun. Sakandarrak bertan parte hartzera deitu dituzte

SAKANA

Ekialde Hurbileko gatazka piztu denetik Palestinari elkartzasuna adierazteko hainbat kontzentrazio egin dira ibarrean. "Aterpean dauden errefuxiatuak, sakandar berriak eta jendeak manifestazio bat noiz egin behar dugun galdetu digute. Orain arte ezin izan dugu egin, asteburu guztietan zerbait zegoelako. Azkenean, data finkatzea lortu genuen", azaldu du Sakana Harrera Harana plataformako kide Josu Rubio Mendiluzek. *Israel genozida, Palestina askatu* leloa duen manifestazioa deitu du plataformak, larunbatean, 19:00etan, Altsasuko udaletxe paretik abiatuko dena. Sakana Harrera Haranatik eskatu dute "kontzientzia pixka bat duen jendea manifestaziora batzeko".

Gazan Israelek 20.000 pertsona inguru hil ditu momentuz. "Ez dakigu eraikinen hondakinen azpian zer dagoen, gehiago izan daitezke palestinar hildakoak, desagertu asko baitaude. Hilda-

koen %70 emakumezkoak eta haurrak dira. Datuak argi uzten du nori dagoen zuzenduta Israelen genozidioa. Kalte gehien sufritzen dutenak, betikoak dira, ahulenak. Populazio zibila jomuga bihurtu du Israelek", azaldu du Rubiok.

Israelek gerra argudiatzeko darabilen arrazoiei erantzunez, Rubiok esan duenez, "Hamasen buruak non dauden badakigu: Qatarren, Iranen eta hortik. Palestinan daudenak erresistentziako milizianoak dira. 75 urte borrokan daramate. Hori Nazio Batuen Erakundean eta leku guztietan onartuta dago". Ukatu du egungoa Hamas eta Israelen arteko gerra denik, Palestina eta Israelen artekoa dela nabarmen-

"KALTE GEHIEN SUFRITZEN DUTENAK AHULENAK DIRA. ZIBILAK JOMUGA DIRA ISRAELENDAKO"

du du. Zehaztu duenez, "Hamas palestinar erresistentziaren zati bat da. Zisjordanian Hamasek ez du gobernatzen eta han ere Israel kristoren sarraskiak egingen ari da". Gogorarazi duenez, "Palestina eta Israelen arteko gatazka 1948tik dago, orduan ez zegoen Hamas; asko jota, 40 urte izanzen ditu".

Plataforma Ongi Etorri Errefuxiatuak-ekin saretuta dago, eta errefuxiatuen arloa lantzen du. "Datu zehatzik ez badago ere, sei eta bederatzi milioi palestinar daude munduan barna barreiatuta". Siriako gatazkak bertakoak migratzera behartu zituen. "Palestinan arazoa beste bat da: ezin dute atera. Gazakoa, esaterako, plater tiraketa moduko bat bihurtu da. Eremu finko hartatik ezin dira atera, eta ezin dira sartu. Jendeak ez daki nondik jo, zer egin. Horregatik esaten dugu genozidio bat dela. Erabateko garbiketa etnikoa da", azaldu du Rubiok. Eta genozidioa gelditzeko eskatu du plataformak.



Hainbat etxarriarrek dagoeneko Sareren dinamikarekin bat egin dute. @SAREETXARRI

Sarek "etorkizunari atek lehenbailehen ireki" nahi dizkio

'Konponbiderako giltzak' dinamikaren bidez "euskal presoan salbuespenezko egoerarekin bukatu" nahi du

SAKANA

Sareko kideek azaldu dutenez, "espetxe politikak bilakaera garrantzitsua izan du azken hiru urteetan. Batez ere, 34 urte iraun duen urrutze politikaren akaberarekin". Nabarmendu dutenez "eskubideen aitortzan nabarmen hobetu den arren, oraindik ere Fiskaltzak eta Espainiako Auzitegi Nazionalak urrun jarraitzen dute espetxe politika justu batek lortu beharko lituzken helburuetatik". Izan ere, Sareko kideen iritziz, "ez du inolako justifikaziorik salbuespenezko politika juridikoak bere horretan jarraitzea". Gogorarazi dutenez, "Eusko Jaurlaritzak onartu dituen presoan gradu progresioen %75i helegitea jarri dio Fiskaltzak, eta asko dira espetxera eta bigarren gradura itzuli behar izan dutenak. Beste delitu mota bateko presoan kasuan Fiskaltzak aurkeztutako errekurtsoak ez baitira %25era iristen".

Saretik azaldu dutenez, "Espainiako Auzitegi Nazionalan emandako erabaki judizialak eragin suntsitzailea du presoarekiko. Erabat ezberdina zen testuinguru batean sortutako jurisdikzio bereziaz jokatzeko jarraitzen da". Nabarmendu dutenez, ez daude "pribilegioak eskatzen" ari, "legezketasuna eskatzen dugu, beste edozein presori aplikatzen zaion legedi eta araudi bera aplikatzea, besterik ez". Besteak beste eskatu du zigorraren hiru laurdenak beteta dituzten presoak kalera ateratzeko aukera izatea edota

Frantzia edo Belgikan betetako espetxe urteak kontuan hartzea.

Manifestua

Sareko kideek "konpromiso irmoa eskatzen diegu eragile politiko, sindikal eta sozialei, espetxeetan oraindik pairatzen den salbuespenezko egoera horri akabera emateko, eta euskal presoan oinarrizko eskubideak defendatzeko". *Konponbiderako giltzak* dinamikaren bitartez, Sarek nahi du "euskal gizarte, bere erakunde politiko eta judizialen bitartez, izatea preso horiek beren etxetara nola itzultzen diren erabakiko duen partaide nagusia".

Salbuespenei akabera eman eta espetxe politika arrunta aplikatuta, etxera itzultzeko bide hori irekitzen joatearen aldeko sinadurak biltzen ari da. Sinatzaile ezagunen artean dago Pello Reparaz musikari arbizuarra. Herrietan eta *giltzak.sare.eus* web orriaren bidez manifestuaren aldeko sinadurak biltzen segitzen dute.

Azkenik, jakinarazi dutenez, "konponbidearen mesedetan", Bilboko kaleak giltzez bete nahi dituela ilbeltzaren 13an. Aurretik, hilaren 29an, herrietan kontzentrazioak egingen direla iragarri du Sarek.

"EDOZEIN PRESORI APLIKATZEN ZAION LEGEDI ETA ARAUDI BERA APLIKATZEA ESKATZEN DUGU"



Suhiltzaileak autobian izandako istripu batean lanean. ARTXIBOA

Gobernuak suhiltzaileendako kamioi berria erosi du

Trenbide geralekuko zubi azpitik pasatzen denez, Altsasun erantzun azkarragoa emanen dute

SAKANA

Altsasuko suhiltzaileen parkean kamioi berri bat dago, zaharkituta zegoen beste bat ordezkatu duena. Zehazki, landa autobonba astuna da Nafarroako Gobernuak erosi duena 526.108 eurotan. Kabina bikoitzeko ibilgailua da, sei plaza ditu, eta 4.000 litroko ur zisterna, ponpa konbinatuarekin, gainera, sua itzaltzeko eta erreskatatzeko materialarekin. Horretaz aparte, harrapatuta gelditzen direnak ateratzeko material hidraulikoa dauka: zi-zaila, bereizgailua eta zilindroa.

Lur orotariko ibilgailuak 3,12 metroko altuera du eta, beraz, parketik zuzenean Altsasura zuzenean joateko aukera dute orain suhiltzaileek. Izan ere, orain artekoa ez zen trenbide geralekuko zubi azpitik pasatzen eta larrialdi kasuan suhiltzaileek herrira sartzeko Iparraldeko Autobia (A-1) hartu behar zuten.

Suhiltzaileen Altsasuko parkean kamioi horretaz aparte, beste kamioi bat dute: baso-bonba arina, azaroan jaso zutena. Hiru ibilgailu ere badaude parkean: anbulantzia bat eta bi orotariko ibilgailu, bat baso suteetarako eta bestea herri suteetarako. Bost ibilgailu guztira. Herrizaingo, Funtzio Publiko eta Justizia Departamentuak adierazi duenez, Suhiltzaileen Zerbitzuaren ibilgailuen flota berritzeko eta larrialdietarako erantzuna indartzeko konpromisoa du.

Altsasuko parkean 21-22 suhiltzaile daude; haietatik zazpi kaboak dira eta gainontzeko 14 suhiltzaileak. Baina hiru suhiltzaile zerbitzuaren beste zereginetan ari da, eta egutegiaren erdia egiten dute Altsasun. Bi suhiltzaile behin-behineko lekualdaketatik etorri dira, eta kide berriak otsailean espero dituzte.

Plazarako estalpe proiektua aukeratuta

Lakuntzarren laurdenak parte hartu zuen herri galdeketa eta haietatik %80 estalpea egitearen aldekoak izan ziren. Arkitektura estudioa egitasmoa fintzen ari da eta, ondoren, udalak eraikina finantzatzeko dirulaguntza deialdira aurkeztuko du

LAKUNTZA

Lakuntzarrek plazan estalpe finkoa jarri edo ez erabakitzeke herri galdeketa parte hartzeko aukera izan zuten abenduko lehen asteburuan. 16 urtetik gorako lakuntzarrak zeuden boto ematera deituta, guztira 1.079 herritar. Haietatik %26,32, 284 lakuntzarrek eman zuten botoa. 58k, %20,42, plazan estalpe finkoa jartzearen kontrako botoa eman zuten. Gainontzeko 226 botoak, %79,57, aldekoak izan ziren. Bi aukeren artean A aukerak 121 boto, %53,54, eskuratu zituen eta B aukerak, berriz, 105 boto, %46,46.

Aukeratutako proposamena Iger arkitektura estudio etxarriarrak egin du. Ideia nahikoa ondua aurkeztu bazuen ere, zenbait xehetasun falta dira eta, horregatik, Lakuntzako Udalak proiektua idazteko eskaera egin dio. Proiektua eskutan, txostena osatu eta udalak egitasmoa dirulaguntza deialdi batera aurkeztuko du, lanak finantzatu ahal izateko.

Babes gehien lortutako aukerak 240 m²-ko azalera duen estalpe finko bat da, 10,5 eta 21 metroko aldeak dituen lau plano inklinatuz osatutako laukizuzena hain zuzen ere. Egitura nagusia altzairuzko profilez egindakoa eta



Aukeratutako estalpearen irudikapena. Eskuinean udaletxeko atea. UDALA

egur bigetekin osatuta legoke. Egitura korten altzairuzko txapaz estalia proposatu zuten arkitektoek. Teilatua bi elementuk osatuko lukete: txapazko sandwich panelez osatutako oihal opakoa eta argia pasatzen uzten duen polikarbonato zelularreko beste oihala.

Dagoeneko Etxarri Aranatzen, Irurtzunen, Arbizun eta Altsasun estalpeak egin dituzte espazio publikoan. Lakuntza bosgarrena litzateke. Arruazuk ere badu asmoa halako egitura bat egiteko ere.



*Gorde zenbaki hau

ESTALPEAK 240 M²-KO AZALERA IZANEN DU; LAUKIZUZENA DA, 10,5 ETA 21 M-KO ALDEAK DITUENA



AURKEZPEN KONTSULTATEGIA

Abenduak 19 · 18:00

Jakoba Errekondo

"Ilargia eta landareak 2024"

Iortia Kultur Etxea (Altsasu)






ZU NON, HAN DA!

58. DURANGOKO AZOKA

KOLABORAZIOA

Sakanako lexia konposatuak (III)

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON

Hitz multzo edo porka batez osatutako lexikoko unitateak ditugula lexia konposatuak genioen aurreko batean eta Sakanako euskal hizkeretan barra-barra erabiliak izan dira. Hona jarraian horietako beste samalda bat.

Aizkoraren ahoa baino aurpegi zorrotzagoa Etxarri Aranatzan erabiltzen zuten aspaldian. Itxura serioa, ia inoiz irribarrerik egiten ez duen pertsona adierazteko erabiltzen zen. *Ez tek, ez, nolanei farres ikusko, aizkoran ague beño aurpei zorrotzokue zikok ta!* (Ez duk, ez, nolanañi barrez ikusiko, aizkoraren ahoa baino aurpegi zorrotzagokoa zaukak eta!)

Aizkora kolpez egindako aurpegia Hau ere Etxarri Aranazkoa dugu, baina Berueten ere erabiltzen zuten antzekoa, aizkora kolpez beharrean, haren buruarekin egina. Itsusia, zatarrak dela norbait edo zerbait adierazteko erabiltzen da. *Esaten ye Bilintxek aizkora kolpes eindako aurpeiye zakala!* (Esaten diate Bilintxek aizkora kolpez egindako aurpegia zeukala!)

Astoa lohian (ezin atera) eduki Aranatzan eta

Burundan erabiltzen da gehienbat. Ironikoa da esamolde hauen esanahia, kontrakoa adierazten baitu. Apurorik eza edo gehiegizko lasaitasuna adierazten du. Lizarragan, esate baterako: *Astue loiti ataa: sacar las castañas del fuego. Etxarri Aranatzan: Astue loyen zikok orrek! Beixee eiñen zittuk, bei, nei ttubenak!* (Astoa lohian zaukak horrek! Berriz ere eginen ditik, bai, nahi dituenak!). Burundan ere: *Etxok astoa loien, ez; bestela e'likek ibiliko jardungurioi* (Ez zagok astoa lohian, ez; bestela ez luke edukiko jarduteko gogo hori)

Asto arrak umea egiten duenean, (norbait) mugitserako asto arrak umea egin, Haizerik ez den urtean Sakanan eta Gartzaronen ere bai. Sekula santan ez, inoiz ez. Ezinezko aukera ematea, aukerarik ez ematea da. Sakana erdialdean erabiltzen dira lehen bi esapideak, bereziki. Noiz gonbietuko dubeten afaltzia? *Asto arrak umie eitten deenien! Aizeik ez dan urtien!* (Noiz gonbidatuko haudan afaltzera? Asto arrak umea egiten duenean! Haizerik ez den

urtean!), Lanean geldi-geldi, apurorik gabe eta gogo gutxirekin dabilenari egokitzen zaio. *I muitziako asto arrak umiek eiñen zittuk!* (Hi mugitserako asto arrak umeak eginen ditik!) Lizarragako hiztegia: *Asto arrak umie itten donien! jcuando "las ranas crien pelo!"*

Aitzurra baino makila maiteago izan Etxarri Aranazkotako eman zuen Bitoriano Huizi apez etxarriarrak 1899ko bere *Manual de Gramatika Bascongada* liburuan. Nekazari txarra zela adierazteko erabiltzen zen esapide hau. Nahiago zuen tratuan ibili feriaz feria, soroko lanetan aritu baino. Horrela erabili zuen aipatu apez etxarriarrak: *"Orra ibillian ibillian zer tratu polita agertu dakioten ferias feria, nun gogoa an zangoa, aitzurra baño makilla maitego izanik dabilzan nekazarai!"* Eta gaztelaniara horrela itzulirik eman zuen: *"He ahí andando andando qué tráfico tan bonito se le ha proporcionado a los malos labradores, que teniendo más amor al palo que a la azada, corren de feria en feria y donde sea su placer"*.

Aldrebesa izan Sakana osoan eta baita Luzaiden ere erabiltzen dute. Traketsa izan, ez bururik ez hankarik. Pertsonekin zein gauzekin erabiltzen da. Aldrebesa da oso mutilloi pillotan jokatzeko, ez tau sekule besue atziatzeko, beye, alee dee, asko atziatzeko dau pillota. (Aldrebesa da oso mutil hori pilotan jokatzeko, ez du sekula besoa atzeratzen, baina, hala ere, asko atzeratzen du pilota). *Bei aldrebesak azkeneko urtioiten erriyontan gertatzen ai dienak!* (Bai aldrebesak azkeneko urte hauetan herri honetan gertatzen ari direnak!) Burundan, *Hau da jendien aldrebesa!*

Apareju ederra izan Oso orokorra da bere erabilera. Bihurria eta baita gizatzarra ere denarengatik esaten da. *Apaaju earra duk jarri dizubuen enkargatu berriya!*



(Apareju ederra duk jarri dizueten enkargatu berriya!) Burundan ere bai horrela: *Oi aparejua, oi erremendua!*

Aparte bage Aranatz eta Arakilen erabiltzen da egun oraindik eta esate baterako edo urrutira joan gabe ordezkatzeko ditu. Adibide moduan jarri nahi dugunean zerbait edo norbait. Tartean 'joan' aditzaren elipsia izanzen balu bezala ulertzen da. *Jende geyenak ez du erregeik nai, zuek aparte bee!* (Jende gehienak ez du erregerik nahi, zuek aparte gabe!). Gaztelaniako *sin ir más lejos* adierazten du.

Ariera Aranatzan erabiltzen da bereziki. Norbait edo zerbait etenik gabe edo era deigarri eta harrigarrian ari denean esaten da. Aurretik erakuslea eransten zaio. *Au aiera lentxoo uraittu dukena tabernan.* (Hau ariera lehentxeago eduki duana tabernan) *Baziruik ez teela sekula santan auriik ein, ori aiera!* (Bazirudik ez duela sekula santan euririk egin, hori ariera!).

Arra-arra etorri/joan/pasatu Sakana osoan erabilgarri dago. Kopuru handiz, etengabe, etorri edo joan. Borborka bezala, ugari. Bi kontzeptuak batera, kopuru handia eta ekintza jarraia, adierazten ditu esamolde honek. *Atzo atsaldien arra-arra pasatu ittuben kotxiek Iruñe aldia, manifestaziya!* (Atzo arratsaldean arra-arra pasatu zituan kotxeak Iruñe aldera, manifestaziora!).

Arrastorik gabe zaunka egin Sakana gehienean erabili izan da aditz perifrasi hau norbaitek gai bati buruz ezer jakinik gabe hitz egiten duenean.

Begibistakoa da, beraz, ehiza txakurrarekin egiten den konparazioa. Ganorarik gabe edo hitz egiteagatik hitz egin. Ehiza txakur onak soilik arrastoa hartu duenean egiten du zaunka. *Ez tu meezi orreki itz eittia, beti arrastoipe eitten du jaunka ta!* (Ez du merezi horrekin hitz egitea, beti arrastorik gabe egiten du zaunka eta!) Gaztelaniako *hablar sin sentido, hablar por hablar* adierazten du.

Arrekilko(rre)z, txaliño-maliño, trikotan, txontxo Bizkar gainean, zaldi erara, eraman norbait. Pertsona bat bizkarrean eramatea. Lehena Etxarri Aranatzan eta Lakuntzan, bigarrena Arbizun, hirugarrena Ergoienan eta azkena Burundan erabiltzen dituzte. *Yon zettez lasei, arrekilkorres/ arrekilkos pasatuko diau erreka ta.* (Egon zaitez lasai, arrekilkorrez/ arrekilkoz pasatuko dugu erreka eta) Burundan Gizon baten bizkarrien txontxo. Gaztelaniako *a horcajadas, a caballo*.

Arrepurrutx bota Isutsi, eskuz erein adierazten du Sakana erdialdean. *Aurrek giñenien, batayue zoonien, eliz atayen laukuek eta zortzikuek arrepu-rrutx botatzen zittubabien!* (Haurrak ginenean, bataioa zegoenean, eliza atarian laukoak eta zortzikoak arrepurrutx botatzen zitiztean!) Gaztelaniaz *a voleo*.

DUELA 25 URTE...



Gaztea maketa lehiaketan, laugarren

Euskadi Gaztea irriatiak (gaur egun, Gaztea) laugarren urtez maketa lehiaketa antolatuta zuen. Euskal Herriko 217 talde aurkeztu ziren, eta saria Elgoibarko 6nemen9 taldeak eskuratu zuen. Behin Betiko talde lakuntzarra laugarrena izan zen. Taldekideak "ustekabeak" harrapatu zituen albisteak, "sinestezina zen eten-gabe gure Mary abestia Euskadi Gaztean emititzen egotea. Boto gehienak Gipuzkoatik jaso omen ditugu".



Euskaraldia 2025eko udaberrian egingen da

Hurrengo Euskaraldia 2025eko maiatzaren 15etik 25era izanen da. Antolatzaileek hizkuntza ohituretan eragiten jarraitu nahi dute, edizioz edizio ikusi delako ariketa eraginkorra dela eta aldaketak ekartzen dituela

SAKANA

Euskaraldiko koordinatzaile Goiatz Urkijok nabarmendu duenez, "Euskaraldia eraginkorra dela, eta aldaketak ekartzen dituela, erakusten ikerketen emaitzak, baita partehartzaileek eta entitateek egindako ekarpenak". Gainera, gizarteko hainbat eragile eta norbanakoren ekarpenak ere jaso ditu Euskaraldiko lantaldeak. Horregatik, dagoeneko hasi dira laugarren Euskaraldiko prestaketa lanak. Ediziotik ediziora ariketaren alde teknikoak aztertu, moldatu eta egokitu izan dituzte antolatzaileek, urtetik urtera ariketa egitea eraginkorragoa izateko. Hain zuen ere, hausnarketa horietatik etorri da, oraingoan, Euskaraldia egiteko garai aldaketa.

Hirugarren edizioaren ikerketak erakutsi du, besteak beste, parte hartzaileen artean euskaraz zekitenekin uneoro euskaraz egiten zutenak %63,9 zirela ariketaren aurretik, eta %78,9 ariketa bukatu ondoren, ariketan zehar proportzioa %85,9ra iritsi zela. "Beraz, euskararen erabilera altuagoa da Euskaraldian parte hartu ondoren, aurretik baino", azpimarratu du Euskaraldizaleen Topaguneko lehendakari Irati Iciarrek. Lehen hitza euskaraz egin ohi zutenak %55,8



Bingen Zupiria, Goiatz Urkijo, Irati Iciar eta Javier Arakama aurkezpenean. UTZITAKOIA

ziren ariketa aurretik eta %75,9 ondoren, edo elkarrizketa elebidunetan euskarari eusten ziote-nak %44,6 ziren aurretik eta %76,6 ondoren. "Datuek erakusten dutenez, nabarmen emendatu da ohitura hauek barneratu eta praktikara daramatzaten hiztunen kopurua", azpimarratu du.

Eraginkortasun horretan sakontzeko aldatu dute ariketa udaberrira, orduan kaleetan jende gehiago eta bizitasun sozial handiagoa dagoelako. "Euskaraldia ariketa soziala den heinean, jendearen arteko interakzioa

beharrezkoa da, eta eguraldiak eta aldarteak laguntzen du horretan", azaldu du Urkijok.

Garai aldaketak txaparen erabilera eta ikusgarritasunean eragitea lortu nahi dute. Txapak ahalbideratzen du ariketa bera, euskaraz hitz egiteko edo entzuteko jarrera erakusten baitu, eta horrek, estres linguistikoa nabarmen murrizten du; hori ezinbestekoa da ariketa modu erosoagoan egiteko. "Eta txapa eraman eta ikusgarri egitea errazagoa izango da, ziurrenik, udaberrian".

Autobus gehiago gelditzen dira Irurtzunen

Nafarroako Gobernuak autobusen ordutegietan aldaketak egin ditu akatsak zuzentzeko

SAKANA

Ibarreko eragile bakar baten iritzia jaso gabe, Nafarroako Gobernuak autobus zerbitzu berria zuen martxan maiatzean. Azkar asko gabezia ugari agerian gelditu ziren. Nabarmenetako bat Irurtzunen. Hainbat konpainiak zerbitzua eskaintzetik La Burundesak bakarrik eskaintzera pasa zen. Horrek Iruñerako joan-etorri eta autobus plaza gutxiago ekarri zituen. Irurtzengo Udalak herritarren kexuak jaso eta ordu tarte guztietan autobusak izatea eskatu zion gobernuari. Gabezia hori konpentsatzeko gobernuak aldaketak egin ditu, eta Irurtzunen bost gehiago gelditzen dira abenduaren 13az geroztik.

Astegunetan Iruñetik abiatuko diren bi autobus gehiago egonen dira: 06:00etan eta 17:00etan aterako dira, eta Irurtzunerako 06:35ean eta 17:25ean iritsiko dira; larunbatetan, Iruñetik 10:45ean aterako dira eta 11:10ean iristeko. Bestetik, Irurtzundik 17:56an irten eta Iruñera 18:21ean iristen diren maiztasunak gehitzen da, eta larunbatetan Irurtzundik 11:23an irten eta Iruñera 11:58an iristen dena. Ordutegi eguneratua labur.eus/fsnDj webgunean eskuratu daiteke.

Komunitate zaintza proiektuaren aurkezpena

Adineko pertsonen bakardade ez hautatuari aurre egiteko egitasmoa da Teknoadineko

SAKANA

Adineko makina bat sakandar bakarrik daude, haiek aukeratu gabeko bakardadea da. Horren jakitun, Zakan Sozial kooperatiba, ibarreko erakundeak eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek *Teknoadineko* proiektua garatu dute. Haren bidez adinekoen zaugarritasun egoerak goiz antzeman eta sailkatzen ditu. Horrek aukera ematen du zerbitzuak eta gizarte eta hezkuntza eskuhartzeeen programak diseinatzeko. Egitasmoak behar bezala funtzionatzeko, erakundeez aparte sakandarren parte hartzea ezinbestekoa izanen da, auzo zaintza edo komunitate zaintza martxan jarri nahi baita.

Proiektuaren sustatzaileek haren berri emateko hiru hitzaldi antolatatu dituzte. Egindako diagnosiaren berri eman eta ateratako ondorioak jakinaraziko dituzte. Bestetik, bakardade ez hautatua zer den azalduko dute eta, azkenik, zaintzen duen komunitate bat sortzeko lehen pausoak eman nahi dituzte. Hitzaldien egutegia: Etxarrin abenduaren 19an, liburutegian; Irurtzunen abenduaren 20an, udal-txean, eta Altsasun abenduaren 21ean, Gure Etxean. 17:00etan dira hitzaldiak.

Europako saria Aldakinendako

Manufaktura Teknologien Europako Elkartek, Cecimok, Machine Tools Innovation saria jaso zuen Aldakin enpresa altsasuarrak Bruselan abenduaren 6an. Minbizia eragin dezakeen hautsaren giza esposizioa ezabatzea eta robotaren errendimendua handitzea material konposatuko piezen mekanizazioen proiektuak eman zion saria. Ibai Inziartek jaso zuen saria.



ALDAKIN



608
570
357 | 15
urte
zurekin
2008-2023



Olatzagutiko erakusketan ikusgai dagoen jaiotzetako bat.

Olaztiarrak jaiotzak egiten, artista hutsak

Sakanako belenzaleen elkartearen erakusketa ilbeltzaren 7ra arte ikusgai izanen da. Makina bat bisitari hartuko ditu, bai sakandarrak baita beste erkidegoetakoak ere. Jaiotzak egiten ikasi nahi duenak erakusketan eman dezake izena

Alfredo Alvaro Igoa OLATZAGUTIA
Bezperan makina bat ordu sartu eta guztia behar bezala prest utzi ondoren, Sakanako belenzaleen elkarteak jaiotzen erakusketa abenduaren 9an zabaldu zuen. Elkarteak kale Nagusiko 51. zenbakian duen egoitzan dago erakusketa, dozena bat diorama edo jaiotza daude ikusgai. Haietako lau berriak dira, beste lau jaiotza

aurretik egindako zortzirekin berregindakoak dira, eta beste lau aurretik erakutsitakoak dira. Asteleheneretik larunbatera 17:30etik 20:00etara dago ikusgai erakusketa. Eta domeka eta jaiegunetan, berriz, 13:30etik 14:30era eta 17:00etatik 20:00etara.

Jesusen, Mariaren eta Joseren hamabi pasarte daude erakusketan, bakoitzak 5 m²-ko azalera du.

Elkartekideek jakinarazi dutenez, jaiotzetan Soriako Calatañazor herriko kale bat dago irudikatuta, Kataluniako Santa Pauko plaza, Ziordiko etxe bat, Trebiñuko Kutxu herriko etxeak eta Dorrao herria urrunean ikusteko aukera dago. Erakusketako jaiotzez aparte, elkartekideen lanaz goza daiteke Altsasuko eta Olatzagutiko elizetan.

Ilusioz

Hala aritu dira elkarteko kideak erakusketa prestatzen. "Aurten ordu pila sartu ditugu. Gogoz saiatu gara. Ez da gauza bera jaiotza bat egiteko 100 ordu edo 800 ordu sartzea. Atzetik dagoen lana nabari da, eta, horregatik, etortzen da jendea urtero bisitan", azaldu dute elkartekideek. Haiek lagundu nahi dituenak, elkarteko bazkide egiteko aukera du. Gaur egun 47 kide ditu Sakanako belenzaleen elkarteak.

Apirilaz geroztik, Malagako Mollina herriko Jaiotzen Nazioarteko Museoan olaztiarren jaiotza bat, diorama bat, dago ikusgai. "Aspalditik nahi zuten gure jaiotza bat. Apirilean etorri ziren eta haiekin bueltan eraman zuten". Jakinarazi dutenez, Belenzaleen Nazioarteko Federazioak aurten bere kongresua Andaluzian egin du, lastailaren 29tik azaroren 5era. Jardueren artean aipatutako museora bisita zegoen. "Belenzale askok beraien Facebook profiletan gogoko jaiotzen argazkiak jarri zituzten, eta hainbatek gureari egindako argazkia publikatu zuen", azaldu dute pozez.

Dagoeneko Olatzagutiko erakusketatik valentziarrak pasa dira. Oviedo, Katalunia, Andaluzia eta Hego Euskal Herriko elkarteetako kideen bisitak espero dituzte aurten ere. "Badakite Olatzagutian kategoria dagoela, hona etorritz gero asmatu egiten dutela". Haietako batzuen berri izan zuten irailean, Gasteizen egindako ipar aldeko belenzaleen topaketan. Jasotako bisitak bueltatzearen zale dira elkartekideak eta aurten Sevilla, Cordoba, Cadiz eta Jerezko erakusketak bisitatu dituzte haietako batzuek. "Saria da besteek egindako lanez gozatzea. Belenzalea jaiotza baten

aurrean jarri eta 'dastatu' egiten du. Bakoitzaren parean hamar edo hamabost minutu egotengara, guzti-guztia behatzen".

Heldu den urteko azaroan Iruñeak estatuko belenzaleen kongresua hartuko du. "Duela sei urte Gasteizen izan zen eta denak, lau autobus, Olatzagutia etorri ziren erakusketa ikustera. Bide batez, bertan bazkaldu zuten". Iruñeko hitzorduaren berri izanda, heldu den urtean azarorako erakusketa prest izatea nahi lukete elkartekideek.

Ikastaroak

Elkarteko kideak Akelarre ludotekako haurrei jaiotzei buruzko ikastaroa eman diete aurten. Dozena bat saio izan dira, astean behin. 10 eta 12 urte arteko haurrek porespana lantzeko artea bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuten, eta saiotik saiora jaiotza bat nola egin ikasi zuten. Baita egin ere. Ludotekan egindako bederatzai jaiotza beste horrenbeste etxeetan ikusgai daude. Elkartekideek azaldu dutenez, "oso gustura egon ginen haiek eta gu. Ilusio handiz egin zuten jaiotza eta erakusketara etorri zaizkigu esatera dagoeneko etxean jarri dutela".

Jaiotzak egiteko artea ezagutu nahi duenak erakusketatik pasa eta elkarteko kideei jakinarazi behar die bere interesa. Haiek beraien jakintza sakandarrekin apirilean partekatu nahi dute, ordurako antolatu baitute ikastaroa.

"BELENZALEA JAIOTZA BATEN AURREAN BEGIRA JARRI ETA 'DASTATU' EGITEN DU"

Andrimango lezeari buruzko argi gehiago

Hiru espeleologo taldeetako kideak orain arte baino sakonago ezagutzeko aukera izan dute

OLATZAGUTIA
Andrimango lezearen sarrera garai batean Aldoar harrobiaren eskuin aldean, goian, zegoen. Baina harrobiaren jardunagatik desagertu zen. Hala ere, sarbideren bat badago oraindik, Gal-

damesko Burnia, Oñatiko Aloña Mendi eta Alloko Katteam espeleologia taldeko kideak han izan baitziren abenduko zubian. Aipatu leze hori duela hamarkada batzuk esploratu zuten. Orduan 60 metroko sakonerara iritsi zi-

ren eta 150 metroko galeriak ezagutzera eman zituzten. Espeleologoak bitan sartu ziren eta 90 metroko sakonerara iritsi eta lurpean 750 metroko garapena egin zuten, galeria ederrak opatu dituzte. Barruan 11 graduko tenperatura eta %94 hezetasuna dago. Esan dutenez, "Sakanako koba handienetako bat da". Exploratzen segitzeko asmoa dute: "mendi karstiko txiki horren irteera naturala (ur azpikoena) oraindik urrun dugu, baina bidea dagoeneko hasita dago!"



Espelelogoa Andrimango lezean. UTZITAKOA



Zer



opari

*Eguberrietako
gehigarria
2023-24
guaixe*
SAKANAKO ASTEKARIA



eska



dezaket?



Bikingoetan inspiratutako bohemio bildua.

Orrazkerak



Kizkurak aldi baterako orraztuta, egun batzuetarako kizkurak eraman ditzakezu ilea garbitu arte.



Goiko mototsetik bildua ezkontza baterako ere.

Urte berri on!
 @buxek_ileapaindegia
 www.buxekileapaindegia.com
Fernando Urkia 1,
Arbizu
948 461 698



Ezkontza baterako erromantiko bildua.

ARGAZKIAK: BUXEK

Betaurrekoak



Armazoi gardenak

Armazoi gardenak dotorezia dira bere soiltasunean. Perfektuak dira aurpegierak nabarmentzeko edo makillajea ez estaltzeko. Edozein azal koloretara ongi egokitzen dira, estiloa eta moldakortasuna elkartuz.



3D betaurrekoak

Teknologia eta pertsonalizazioa elkartzen dituzte 3Dan inprimatutako betaurrekoek. Diseinu mugagabeak. muturreko pertsonalizazioa, erosotasuna eta material ekologikoen erabilera bultzatzen du teknologia honek.



Tamaina handiko armazoi karratuak

2024a betaurrekoetan maximalismoaren urtea izanen dela dirudi, tamaina handiko armazoi karratuen protagonismoarekin. Betaurreko hauek aurpegi egitura desberdinen osagarri dira eta ikusteko erosotasuna dute oinarri.



Shiel betaurrekoak

Kirol mundutik datorren estiloa da, 1970ean egin zuen jauzi kaleko modara, lenteen teknologian egon zen aurrerapausoaren ondorioz. Berriro ere bueltan datoz, itxuraz gain, babes handia ematen duten kristal erraldoiekin.

Sakanaoptika
 optometria • audiametria • kontaktologia

Eguberri hauetan eskatu zoriontasuna

948 563 124 • San Juan kalea, 40 • Altsasu • www.optikasakana.com



JAI ZORIONTSUAK!

13 Udaberri Loredenda
Akeita kafetegia
Allianz aseguruak
Arkatx Liburu-denda
Arkupe koloi denda - altzariak
Asensio Moda
Bengoetxea Oinetakoak
Ekin Moda
Cristina janari-denda
Deportes Lezea kirolak
Gautxori Taberna
Gertu Sakana
Hiruon harategia
Iker Kirolak

Inmobiliaria agurain
Iulene
Izara cortina stor
Joselen Moda
Katuka
Mari Carmen
Marigorri
ML Moda gizezkoa
ML Moda emakumezkoa
Next Movil
LARKA
Lasa Kirolak
Leku Ona Jatetxea
Liburunda paper-denda


Lorea lore eta belardenda
Pinpilinpauxa
Ramos etxea
Ramos elektrizitatea
Santa Cruz altzariak
Sakana optika
Sarabe belardenda
Sare oinetakoak
Scooby Txakurren ile-apainketa
Sorkunde harategia
Tu Tienda Especial
Txartel
Txikitxo
Xagu Informatika

*Oparitu, erosi eta Altsasuko tokiko merkataritza lagundu.
Herri bateratuagoa egingo dugu.*

Euskarazko katalogoa




Sakan



ERRALDOIEN HERRIALDEA
DANIEL HERNANDEZ
CHAMBERS, ANTONIO
LORENTE ETA AITOR ARANA
IBAIZABAL
10-12 URTE
11-20 EURO

Halaberrezko topaketa batek Creyren eskuetan objektu magiko oso arriskutsu bat jarriko du. Orain kondairako izaki batekin bidaiatu beharko du, mehatxu ilun bat atzetik orpoz orpo dabilkion bitartean. Mutila noraino heltzeko prest ote dago leialtasunaren izenean.



**INOIZ EZ
DESAGERTZEKO IPUINA**
MIMATUZ ETA
XABIER ETXANIZ
DENONARTEAN
6-9 URTE
11-20 EURO

Konturatzeko gaua iristen zen, eguzkiak agur eta ilargiak kaixo esaten zueneko uea. Baina egunero ezzen ateratzen ilargia. Nora joan da ilargia? Ez da berriro itzuliko? Desagertu egin da? Betirako? Eta ni desagertzen banaiz? Horrelaxe joaten ziren gau bat eta beste bat aitari eta amari eskutik helduta...



Última visita film laburra
(Olaztin grabatutakoa)
Imanol Reta



Altsasu 1936
Iosu Imaz eta Amaia Urkijo




MEMO
MEMORIA JOKOA
TTARTTALO ARGITALETXEA
5-6 URTERA ARTE
11-20 EURO

Oroimena eta irudimena lantzeko jokia. Bi joko batean; batetik, hartu gogoan formak eta irudiak eta bikoteak egin. Bestetik, txartelak elkarren artean lotuz, bideak osatu. 2023an berrargitaratua.



LEPORA
ZULOTIK LEPORA
BONBERENEA
14 URTETIK AURRERA
11-20 EURO

Zulotik Lepora laukote gasteztarraren bigarren lana da. Post hardcore estiloa jotzen dute, eta diskoan sei abesti bildu dituzte.



Inoiz
Deserrite



Aaztiyen
Zetak

ako katalogoa



Mainamikirri
Castillo Suarez



Alaska
Castillo Suarez



Itzulpena: Oihangintzako eskuliburua (Ramon Andres)
Castillo Suarez



Musker amarruak
Jon Arretxe



Azpimarrak
Nerea Balda Sanjuan



Visible, in-visible
Oihane Andueza



Teodosioren kondaira
Alfonso Gartzandia Goñi



Astoaren putza!
Garazi Otsagabia eta Iker Uribe



¡Ay ene! Ziordia, Villafranca y Txantrea en el corazón
Mila Martinez



Ehundu Gasteiz
AnneKdotas



Berriz esnatzean
Ganibet



Arrazoi Ta Bihotz
Haizkan



Askatasun haizea
Nafarroa 1512



S.A.L.V. Rural
S.A.L.V. HC Rural



Xuar
Xuar



Olaiaren lorategia
Victoria A. Musseti



Moby dick
Xabier Artieda



Zure opariak
hemen aurkituko dituzu!

fotokopia@kaxeta.net
628 542 519 | 948 460 477



Vite berri on!
Enkargua aurretik egin

Altasasu: 948 563 822 (denda) | 948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranzte: 948 460 988 | Urduain: 948 563 763



Txekor isatsa patata purearekin

Osagaiak:

1.200 gr txekor isats
2 patata
2 tipula
Azenario bat
Piper berde bat
3 Baratxuri ale
400 ml ardo beltz
25 gr txokolate beltz
Irina

1. Isatsa zatitan moztu eta gatza eta piperbeltza bota ondoren, irinez inguratu eta bi aldeetatik frijitu.

2. Baratxuri aleak, tipula eta azenarioak txikitu eta gorritzen jarri isatsa egin duzun zartagin berdinean. Piper berdea kubotan zatitu eta gehitu. Behin barazkiak gorrituta, presio eltzean jarri. Isatsa gehitu, ardoa eta edalontzi bat ur isuri, gainera, 15-20 piperbeltz ale gehitu. Tapa jarri eta behin balbula igota, 25-30 minutuz kozinatu.

3. Isatsa alde batean gerorako gorde eta saltsa puregailutik pasa. Txokolatea birrindu eta saltsarekin nahastu. Saltsa isatsaren gainean jarri eta 2-3 minutuz irakin.

4. Patatei azala kendu eta bigundu arte ur eta esnetan egosi. Behin egosita daudela, txikitu eta gurinarekin nahastu.

5. Isatsa eta purea elkarrekin zerbitzatu.

Ziazerba kroketak urdaiazpikoarekin

1. 3 minutuz ziazerbak irakiten jarri ur eta gatzetan eta ondoren ura kendu eta txikitu. Baratxuria zatitu eta oliba oliotan gorritzen jarri, gero ziazerbak gehitu. Aurreragorako gorde. Olio berdinean, pinaziak txigortu eta ziazerbekin nahastu.

2. Esnea berotu, eta bitartean beste kazola batean gurina urtu. Behin urtuta dagoenean, irina pixkanaka gehitzen joan eta pasta bat sortu arte. Esne beroa gehitzen joan eta gatza gehitu ondoren, ziazerbak bota, irakiten utzi.

3. Bexamela erretilu batera pasa eta gaztarekin nahastu. Bi orduz hozkailuan utzi.

4. Kroketa sortu, arrautza irabiatuarekin inguratu, ogi xehetutik pasa eta oliba olioan frijitu.

5. Zartagin bero batean urdaiazpikoa egin kurruskari dagoen arte, kroketen gainean jarri txotx batekin eta zerbitzatu.

Osagaiak:

300 gr ziazerba fresko
Baratxuri ale bat
Arrautza bat
150 gr gazta fresko
40 gr pinazi
200 ml esne
40 gr irin
40 gr gurin
100 gr ogi xehetu
100 gr urdaiazpiko iberiko



HARATEGIA
Luzer de Grikentza
CARNICERIA

Arkumea, antxumea eta txerrikumea temperatura bajaran eginda. 30 minutu labean eta mahaira.

ETXEAN HAZITAKO TXEKOR HARAGIA
ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA

Deitu 948 562 157 | 617 766 536 edo

Karasatorre
janaridenda · harategia

Artisau erara egindako hestebeteak
Autozerbitzua
Etxeko tripekiak

TXISTORRA
2. SARIA

Kale Nagusia, 22 · Etxarri Aranatz · 948 460 036

xapatero
taberna
Urte berri on!

948 460 162 · Etxarri Aranatz



Urte berri on

Olentzero eta Maridomingi
Ikaztegieta kalea, 1
Sakana



Igorlea:

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 15

IRURTZUN Hitzaldia.

Haurrak eta gazteak, pornografiaren aurrean nola esku hartu Emaize sexologia zentroko Ana Ortiz Ballesterosen hitzaldia, gaztelaniaz. Haur eta gazteen bidelagunei zuzendutako hitzaldia (irakasleak, gurasoak, hezitzaileak...). Sakanako Mankomunitateko Berdintasun zerbitzuko azaroaren 25aren egitarauaren barruan.

17:30etik 19:30era, kultur etxean.

ALTSASU Gazte agenda.

Sua euskal mitologiako karta jokoaren txapelketa.

18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ETXARRI ARANATZ Pala.

Sakanako Gure Pilota Txapelketa: June C. - Arhane G. / Malen - Arhane J.; Gure Pilota Sakanako XIX. Pala Torneoaren finalerdiak: Lehen maila: Aizpeolea - Sarasibar / Saioa - Casillas; Mazizor - Larraza / Zabalza - Tolaretxipi.

18:30ean, Euskalerriri pilotalekuan.

LAKUNTZA Liburu aurkezpena.

Mikel Arregi Marin. Oroimen erregistroak Lera-lkergunea Antropologia Taldearen liburuaren aurkezpena, Kepa Fernandez de Larrinoa, Karlos Irujo Asurmendi eta Txuri Ollo Gorriti egileekin.

18:30ean, Lakuntzako Pertza elkartearen.

ALTSASU Tailerra.

Irakurkide txakurrekin irakurketa tailerra, Biak Bat txakurrekin eta hezitzaileekin, Sakanako Mankomunitateak eta Biak Bat elkarteak antolatuta.

18:30ean, liburutegian.

ALTSASU Boxeo eta Kick Boxing gaua.

Boxeo eta Kick Boxing gaua: Boxeo profesionala 68 kg, Joseba Diaz; Boxeo amateur 62 kg Asier Amatriain vs. Jon Ferreras; 69 kg, Manex Grados vs. Brayan Soto; 70 kg, Xuban Muñoz vs. Asier Maiza; 71 kg, Daniel Eito vs. Alejandro Cisneros; 53 kg, Raul Carvajal vs. Sofia Remon vs. Irati Altzelai; 65 kg, Garat Flores vs. Renzo Regalado; Kick Boxing CTO Navarro 83 kg, Ekaitz Berradre vs. Guille Bonet, eta 75 kg, Xeone. Sarrerak: orokorra 25 euro eta aulkia 30 euro. 19:00etan, Burunda frontoian.

OLATZAGUTIA Zinema.

Bidasoa 2018-2023 Fermin Muguruzak zuzendutako film dokumentalaren emanaldia. 19:00etan, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Ekitaldia.

Sakanako Kirolari Hoberenaren Sari Banaketa Ekitaldia. 19:30ean, kultur etxean.

ALTSASU Kontzertua.

Erkudengo Ama Abesbatzaren Gabonetako kontzertua. 20:00etan, elizan.

ETXARRI ARANATZ Bakarrizketa.

Joxe Aldasoro etxarriarraren *Zurrapopotie* bakarrizketa saioa. 22:00etan, kultur etxean.

LARUNBATA 16

ARAKIL Irteera kulturala.

Tolosara eta Idiazabalera kultur irteera, Arakilgo Udalak antolatuta. 09:00 Irteera bailaratik.

10:00 Tolosako Alde Zaharretik bisita gidatua.

12:30 Gaztaren Interpretazio Zentroa bisita gidatua eta dastaketa.

14:00 Bazkaria.

18:00 Itzulera.

OLATZAGUTIA Xakea.

Sakanako XXIII. Xake Txapelketa: Nafarroako 1900 ELO puntutik beherako txapelketa. Hamabost minutu eta bost segundo jokaldiko zortzi partidara. Sakanako Mankomunitateak eta Zaldi Beltza Xake Taldeak antolatuta. Kultur etxean. 09:30 Izena ematea 10:00 Txapelketaren hasiera.

ETXARRI ARANATZ Pala.

Sakanako Gure Pilota Txapelketa: Katixa - Laia / Iraia S. - Izar G.; Auritze - Itzea / Nahia M. - Amaia; Irene - Olaia / Goiatz - Izane; Maialen M. - Nerea / Laiatz - Sarai; Leire - Alaine / Natale - Katixe S.; Oskia - Aizeti / Jare - Irati L.; Laida - Iraia / June - Nahia. 10:00etan, Euskalerriri pilotalekuan.

IHABAR Tailerra.

Josi zure motxila. Antolatzaileak: Miren eta Idoia. 11:00etatik 13:30era, herri etxean.

LIZARRAGA Topaketa.

Gabon eta Olentzero kantak entseatzeko topaketa. 17:00etan, eskoletan.

IRURTZUN Liburu aurkezpena.

Izena duen guztia omen da. Euskal Herriko izaki mitologikoak mitologiari buruzko liburu interaktiboaren aurkezpena Aritza Bergararen eskutik. 18:00etan, Pikuxarreko ganbaran.

ALTSASU Gazte agenda.

Play txapelketa. 18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

EGIARRETA Mari Domingi.

Mari Domingi Olentzerorendako eta Mari Domingirendako gutunak hartzen egonen da. Gaztain eta txokolate jana izanen da. Arakilgo Udalak antolatuta.

19:00etan, Itxasperri.



ARTXIBOA

IRURTZUN Brun forjak-ek Eskuz egindako forja koadroak erakusketa.

Urtarrilaren 31ra arte. Pikuxar tabernan.



UTZITAKOIA

UHARTE ARAKIL Koldo Arnanzen Keinu bat iraganari erakusketa. Abenduaren 24ra arte. Larunbatetan 17:30etik 19:30era eta igandeetan 11:30etik 13:30era. Udaletxean.



OLATZAGUTIA Sakanako Belenzaleen elkartearen Jaiotzen erakusketa. Ilbeltzaren 7ra arte. Asteleheneetik larunbatera 17:30etik 20:00etara eta igande eta jaiegunetan 13:30etik 14:30era eta 17:00etatik 20:00etara. Elkartearen egoitzan.



*Gorde zenbaki hau

Er **iti** aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Ez bota etxea leihotik!

ALTSASU Manifestazioa.

Israel genozida, Palestina askatu!
Sakana Harrera Haranak deitutako manifestazioa.

19:00etan, udaletxearen aurrean.

OLATZAGUTIA Antzerki foroa.

Binomio. Desioa eta indarkeriari buelta bat. Porno. Sexu indarkeriaren prebentziarako antzerki foro parte hartzailea, 12 eta 18 urte bitarteko gazteendako. A25aren harira Sakanako Mankomunitateko Berdintasun zerbitzuaren egitarauaren barruan.

19:00etan, gazte txokoa.

IGANDEA 17**UHARTE ARAKIL Futbola.**

Sakanako Benjaminen Areto Futbol - Futbol 8 Topaketak. Frontoian.

10:00 Arbizu KT – Aralar Mendi

11:00 Altsasu KE – UharTE Neskak

12:00 SD Altsasu – Etxarri Aranatz KE

13:00 Altsasu – Sutegi

ETXARRI ARANATZ Pala.

Sakanako Gure Pilota XIX. Pala Torneoa: Filnalerdiak: Elite maila: Amaia – Irati / Galdos – Ruiz de Azua; Espinal – Ardanaz; Murillo – Eizmendi.

11:00etan, Euskalerriri pilotalekuan.

UHARTE ARAKIL Mendigoizaleen eguna.

58. Euskal Herriko Mendigoizaleen festa. Aralarko santutegian.

11:00 Mendigoizaleen Meza, talde guztien asmoen alde eta urtean hildako kideen oroimenez. Aralarko Goiaingeruaren irudia aldarean egonen da eta bukaeran gurtzera emanen da.

12:30 Meza nagusia.

OLATZAGUTIA Elkartasun azoka.

Elkarri Laguntza Elkarteen aldeko elkartasun azoka: bigarren eskuko salmenta salmahaia; hausnartzeko txokoa; ama hizkuntzen txokoa; pintxo txokoa; Elkarri Laguntza elkarte, eta jolaserako txokoa. Sakanako Mankomunitateko Anitzartean zerbitzuak eta Sakana Harrera Haranak antolatuta, Olaztiko Udalaren laguntzarekin.

12:00etatik 14:00etara, frontoian.

IRURTZUN Kalejira.

Olentzeroren postontzira kalejira. Olentzeroren Batzordeak antolatuta.

17:30etan, Foru plazan.

ARBIZU Liburu aurkezpena.

Mainamikirri liburuaren aurkezpena eginen dute Castillo Suarez, Morkots eta Olatz Aldasoro egileek.

17:30etan, Olatzea hotelean.

ETXARRI ARANATZ Magia ikuskizuna.

lagomagoaren *Serendipia* magia ikuskizuna.

17:30etan, kultur etxean.

ALTSASU Gimnasia erritmikoa.

Sakanako Iskiza gimnasia erritmikoko taldearen Gabonetako erakustaldia.

17:30etan, Zelandi kiroldegian (sarrera eskolatik).

LAKUNTZA Liburu aurkezpena.

Astoaren putza! Lakuntzako Pertzaren kondairan oinarritutako Garazi Otsagabia idazlearen eta Iker Uribe ilustratzailearen liburuaren aurkezpena eta ipuin kontaketa.

18:00etan, kultur etxean.

LAKUNTZA Olentzeroren postontzia.

Olentzero eta Mari Dominigirendako eskutitzak postontzian uzteko aukera izanen dute haurrek. Ondoren, txokolate jana.

18:00etan, elizaren atarian.

OLATZAGUTIA Laminatutur.

Laminatutur Olentzeroren Olaztiko laguntzaileak gutunak jasoko ditu.

18:30etan, Maisuenea gaztetxean.

ETXARRI ARANATZ Kontzertua.

Etxarri Aranazko Abesbatzaren *Amalurra* kontzertua, Abesbatza Txikiaren parte hartzearekin.

19:00etan, elizan.

ASTELEHENA 18**ALTSASU Elkarretaratzea.**

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.

12:00etan, Foru plazan.

IRURTZUN Kontzertua.

Irurtzuno Musika Eskolako ikasleen kontzertua. Musika Eskolak antolatuta.

18:00etan, kultur etxean.

ASTEARTEA 19**IRURTZUN Ipuin kontalaria.**

Izaskun Mujika ipuin kontalariaren saioa. Lau urtetik aurrera.

17:30etan, liburutegian.

ALTSASU Liburu aurkezpena eta kontsultategia.

Jakoba Errekondoren *Ilargia eta landareak* 2024 liburuaren aurkezpena eta kontsultategia, *Zu non, han DA!* Durangoko Azokaren ekimenaren barruan, Arkatz liburudendak antolatuta.

18:00etan, Iortia kultur gunean.

ASTEAZKENA 20**LAKUNTZA Batzarra.**

2024ko San Saastin festak antolatzeko Festa Batzordearen batzarra.

19:00etan, udaletxearen batzar aretoan.

IRURTZUN Neguko zinema.

El club de la lucha filmaren emanaldia, Larrazpi elkarteak eta Irurtzuno Udalak antolatuta.

20:00etan, Larrazpin.

OSTEGUNA 21**IRURTZUN Liburu aurkezpena.**

Astoaren putza! Lakuntzako Pertzaren kondairan oinarritutako Garazi Otsagabia idazlearen eta Iker Uribe ilustratzailearen liburuaren aurkezpena eta ipuin kontaketa.

18:00etan, Pikuxar elkartearen.

IRAGARKI SAILKATUAK**IRAKASKUNTZA****KLASEAK EMAN**

LH ikasleendako klase partikularrak: Aktiboan nagoen irakasle bat naiz eta Lehen Hezkuntzako klase partikularrak ematen ditut. Interesa baduzu deitu edo idatzidazu. 655 448 901.

LANA/NEGOZIOAK**LAN ESKAINTZA**

Irurtzuno Pikuxar taberna asteburuetan lan egiteko sukaldari bila: Interesatuak Cva.pikutaberna@gmail.com helbidera bidal dezakete.

Aisialdiko begiraleen lan poltsa osatzeko deialdia: Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak aisialdiko begiraleen lan poltsa osatu nahi du. Deialdian interesa dutenek euskaraz jakin behar dute, ahoz eta idatziz; horregatik C1 maila egiaztatu beharko dute. Gainera, Derrigorrezko Bigarren

Hezkuntzako titulua edo horren baliokidea izan beharko dute. Lan poltsa osatzean, Mank-ek kontuan izanen du hautagaiek gidatzeko baimena eta autoa izatea eta aisialdiko begirale titulua izatea. Deialdian interesa duenak curriculum *euskara1@sakana-mank.eus* helbidera bidal dezakete.

OHARRAK

Zabalarte mendi elkarte egutegirako argazki bila: Elkarrekin Lakuntzako txokoen argazkiekin ilustratu nahi du 2024ko egutegia eta horretarako lakuntzarrei argazkiak helbide honetara bidaltzea eskatzen die: *lakuntza.aralar@gmail.com*.

Emakumeen bilgunearen zabalpen zerrenda martxan: Altsasuko Udaleko Emakumeen Bilguneak Whatsapp aplikazio-ko zabalpen zerrenda bat sortuko du, Berdintasun Zerbitzuetik antolatzen ditugun ekitaldi

eta jardueren berri emateko. Zabalpen zerrendan parte hartu nahi baduzu, bidali iezaguzu Whatsapp mezu bat zure izen-abizenekin eta zerrendan parte hartu nahi duzula adieraziz telefono honetara: 628 328 593.

Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak: Establezimendu komertzialei, ostalaritzakoei eta elkartei zuzendutako dirulaguntzak dira. Diruz lagunduko dira errotuluak, toloak eta ibilgailu komertzialen errotulazioa. Euskaraz hutsean idatzita dagoen errotuluak jartzen duenari %50 ordainduko zaio, gehienez 500 euro emanen zaizkio. Euskaraz eta erdaraz idatzita daudenei %25a, gehienez 250 euro. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko urriaren 31n amaitzen da. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian.

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburak.eus

Bazkide

Zozketa

ABENDUKO SARIDUNAK

1. SARIA
Izaskun Erdozia Ulaiar
(Etxarri Aranatz)

2. eta 3. SARIAK
Jexux Galartza Zelaia (Altsasu)
Egoitz Urritza Lazkoz (Bakaiku)
Altsasuko Zelandi Herri Eskola (Altsasu)

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.

ESKELA



Amaia Horcada Goñi 

Beti egongo zara gurekin

Zure familia

ESKELA

Amaia Horcada Goñi 

Zauden munduan bidaia ederrak egiten jarraitu dezazula

Kuadrilla

ESKELA

Amaia Horcada Goñi 

Haizea zara, Argako printzesa

ESKELA



Martina Aristorena Ijurko 

(Remigio Bakaikoaren alarguna)

Etxarri Aranatzen hil zen, 2023ko abenduaren 11n, 100 urte zituela

Eskerrik asko begirada hutsez, hitz gutxiarekin eman diguzun maitasunagatik

Bere semea, Joxi eta Belen; biloba Joanes
Lizarraga-Etxarri Aranatz



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskela@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70€ prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

JAIOTZAK

- **Aralar Arbilla Angulo**, azaroaren 26an Irurtzunen
- **Aratz Mutuberría Riego**, azaroaren 25ean, Etxarri Aranatzen
- **Antonella Lopez Arretxabala**, azaroaren 26an Arbizun
- **Izei Garziandia Razkin**, azaroaren 30ean Etxarri Aranatzen
- **Oussaid Toumi**, abenduaren 4an Irurtzunen
- **Amets Olza Coroso**, abenduaren 5ean Altsasun
- **Pathe Mbengue**, abenduaren 5ean Olaztin
- **Oneka Andueza Agirre**, abenduaren 6an Olaztin
- **Jesus Abunyawah Obeng**, abenduaren 7an Altsasun
- **Alai Martinez Cantero**, abenduaren 9an Altsasun


INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA.
AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

HERIOTZAK


- **Jose Antonio Gastaminza Ramos**, azaroaren 30ean Olaztin
- **Vicente Zubiria Ostiza**, abenduaren 7an Urdiainen
- **Juana Imaz Jauregiälzo**, abenduaren 9an Olaztin
- **Martina Aristorena Ijurko**, abenduaren 11n Etxarri Aranatzen

EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 15




Larunbata, 16



Igandea, 17



Astelehena, 18




IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN

Izarra, Nafarroako tanatorioa
Gure lurra, gure jendea, gure sustraiak

BEILATOKIAK
ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI-ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- 🐦 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es

FUTBOL PREFERENTEA

13. JARDUNALDIKO EMAITZAK
Lezkairu - Altsasu **0-0**

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Beti Casedano **29**

8 Altsasu **20**

HURRENGO JARDUNALDIA

ABENDUAK 16. LARUNBATA

17:30 Altsasu - Ilunberri (Dantzaleku)

Altsasuk Ilunberri hartuko du

Goi postuek estu jarraitzen dute Preferenten, baina goian sartu nahi badu Ilunberriren kontrako hiru puntuak beharrezkoak ditu Altsasuk.

Arakilgo Zalduek irrist egin du

Elomendiko Txapelketan Bar Olmoren kontra 3-1 galdu zuen Zalduek. Elomendi da lider (24 puntu), Bar Olmo bigarren (23 puntu) eta Zaldua hirugarren (21 puntu). Modernillo da hurrengo arerioa.

EMAKUME PREFERENTEA

12. JARDUNALDIKO EMAITZA
Altsasu - Lourdes **0-6**

SAILKAPENA

EMAKUMEEN PREFERENTE MAILA

1 Tudelano **27**

9 Altsasu

HURRENGO JARDUNALDIA

ILBELTZAK 14. IGANDEA

Altsasu - Tudelano (Dantzaleku)

Altsasu, datorren urtera arte

Altsasuko neskek ilbeltzaren 14an Tudelano liderra izango dute aurkari.

FUTBOL ERREGIONALA

11. JARDUNALDIKO EMAITZA

Arga Ibaia - Etxarri Aranatz **0-2**

Lagun Artea - San Jorge **2-0**

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA

1 Mutilbera C **24**

3 Etxarri Aranatz **20**

5 Lagun Artea **19**

ABENDUAK 16. LARUNBATA

15:30 Etxarri A. - Rotxapea (San Donato)

18:30 Mutilbera C - Lagun Artea (Aranguren)

Etxarrik Rotxapea arerio zuzena etsai

Etxarri Aranatz hirugarren da sailkapenean, baina puntu bat gubxiagorekin seigarren den Rotxapearekin postua bera du jokoan.

Lagun Arteak liderra du aurkari

Lagun Arteak San Jorge mendean hartuz ahaztu zuen Etxarriren kontrako derbian galdu izana. Partida zaila du aurretik, Mutilbera C-k lidergoa jokoan duelako.

Larraza eta Igoa, Sakanako finalaren bila

PALETA GOMA XIX. Sakanako Pala Txapelketako finalerdiak jokatuko dira asteburuan Etxarri Aranazko Euskalerriri pilotalekuan. Lehen mailan Maialen Larraza etxarriarra da ordezkari sakandar bakarra, eta eliteetan Irati Igoa etxarriarra

Maider Betelu Ganboa SAKANA

Azaroaren 24an hasi zen Sakanako Mankomunitateak Gure Pilota elkartearekin antolatutako XIX. Sakanako Pala Txapelketa. Guztira 38 bikote edo 76 palista lehiatu izan dira hasierako ligaxkan: sei bikote elite mailan, eta bederatzi bikote lehen mailan, tartean egungo palista onenak; eta 26 bikote txikienen mailan, gehienak Etxarri Aranazko Gure Pilota eskolakoak, bost kategoriatan banatuta: txitoak, kattagorriak, tximeletak, usoak eta pottokak.

Aipatzekoa da maila nagusietan zazpi palista sakandar lehiatu direla Sakanako Pala Txapelketan, orain arteko kopururik handiena. Elite mailan Naroa Otxoa eta Irati Igoa, eta lehen mailan Maialen Larraza, Lexuri Lazkoz, Onditz Gaintzarain, June Astitz eta Auritze Beltza.

Hasierako ligaxka jokatuta, finalerdien txanda iritsi da. Maila nagusietan bi sakandar sail-



Irati Igoak finalerdia jokatuko du. ARTXIBOA

katu dira finalerdietarako: lehen mailan Maialen Larraza, Enara Maziziorrekin bikotea osatzen duenak; eta elite mailan Irati Igoa, Amaia Irazustabarrenarekin bikotea osatzen duenak. Joan zen urtean Maziziorrekin lehen

mailako txapelketa irabazi zuen Naroa Otxoa, bidean geratu da.

Finalerdiak

Abenduaren 15ean, ostirala, lehen mailako finalerdiak jokatuko dira Etxarri Aranazko Euskalerriri pilotalekuan, 19:00etatik aurrera. Lehen finalerdian Maziziorrek eta Larraza etxarriarrak E. Zabalza eta Tolaretxipi izango dituzte aurkari. Beste finalerdia Saioak eta Casillasek jokatuko dute, Aizpolearen eta Sarasibarren kontra. Elite mailako finalak abenduaren 17an, igandea, jokatuko dira, 11:00etatik aurrera, Etxarri Aranatz. Lehen partidaren Irazustabarrenak eta Irati Igoak Galdosi eta Ruiz de Azuari egingo diete aurre, eta, bigarrenetan, Murillok eta Eizmendik Espinali eta Ardanazi.

Asko dago jokoan: abenduaren 23ko final handietarako txartela lortzea. Bestalde, kategoria txikietan ere azken kanporaketak jokatuko dira asteburuan.



Martija eta Ezkurdia. F. DE LA HERA.

PILOTA Bartzelonan hasi beharko dute erremondata

Binakako Txapelketa hasi besterik ez da egin, baina erabakiak hartu behar daude zenbait biko. Orain arte jokatutako hiru jardunaldietan Martijak eta Altona ordezkatzeko duen Elezkano II.ak oraindik ez dute punturik lortu, eta puntu bakarra dute Ezkurdiak eta Tolosak. Egoerari buelta eman behar da. Larunbatean elkarren kontra jokatuko dute, Vall d'Hebron. Jokoan duten puntua urrezkoa da biendako. Jaialdi berean, B Serieko txapelketan Salaberriak eta Arbizuk De la Fuente eta Bikuña izango dituzte aurkari. Bestalde, Peio Etxeberriak eta Zabaletak (2 puntu) Elordi eta Rezusta (3 puntu) liderren kontra jokatuko dute etzi Eibarren.



UTZITAKOA

Nafarroako txapeldun, Arbizun

PILOTA Azaroaren 25ean Nafarroako Kirol Jokoen Eskuz Binakako lehen fasearen bigarren eta hirugarren mailako finalak jokatuko ziren Arbizuko kiroldegian, tartean Aldabideko eta Irurtzongo zenbait bikote zirela. Benjaminen 2 mailan Aldabideko Mauduitek eta Sanchezek bi jokatzen hartu zituzten mendean Berriozar A taldeko Diaz eta Oroz (9 eta 10 eta 9

eta 10). Kimuen 3 mailan Irurtzun C taldeko Lizasok eta Ongayk 18 eta 11 irabazi zieten Txaruta C taldeko Ruiz de Larrinagari eta Irigoieni. Sakandarrekin despeditzeko, hurren 3 mailan Aldabide A taldeko Mendinuetak eta Urtasunek Berriozar C taldeko Elarre eta Mujika izan zituzten aurkari. Berriozarkoak izan ziren txapeldunak, 18 eta 5 irabazita.

LABURREAN

Mendizaleen urteroko hitzordua San Migelen

Eguberri aurreko igandean, ohi denez, mendizaleek Aralarra joko dute, Mendigoizale Egunera. Nafarroako mendi klubuen festaren 58. edizioa izango da aurtengoa, ez daudenak gogoratzeko eguna. Euren meza 11:00etan izango da, eta ohikoa 12:30ean. Auzatean ez da musirik faltako. Sakanako Mendizaleak 8:00etan abiatuko dira, Uharte Arakildik.

Xake Txapelketara gonbidatu du Mank-ek

Olartziko Kultur Etxeak Sakanako XXIII. Xake Txapelketa hartuko du abenduaren 16an, 10:00etan. 9:30ean eman behar da izena, eta bertan parte hartzera animatu du Mank-ek. Aldi berean, Nafarroako 1900 ELO puntutik beherako txapelketa izango da. Joan zen urtean Hiriberrin 37 xakelari lehiatu ziren, tartean 15 sakandar, eta Mariano De Pablos eta Saioa Torres gailendu ziren.

Xotak Barça aurkari Kopako final laurdenetan

Hiru urte ondoren Osasuna Magna Xotak Espainiako Kopa jokatzeko txartela lortu du. "Klubarendako eta zaletuendako saria da, azken bizpahiru urtetan taldea ia zerotik sortu baitugu. Orain gozatzea dagokigu" azaldu du Miguel Hernandez entrenatzaileak. Martxoaren 21ean, Cartagenan, Xotak Barça ahaltsua izango du aurkari Kopako final laurdenetan.

Aurpegi ezagunak Urdiaingo Ziklo-krosean

ZIKLO-KROSA Burunda Txirrindularitza Taldeak abenduaren 3an antolatutako I.VI Urdiaingo Ziklo-kroseko open mailan Gorka Izagirre eta Olatz Odriozola gailendu ziren. Txirrindulari ezagunekin batera, hotz izugarria eta lainoa izan ziren protagonista

Maidar Betelu Ganboa URDIAIN

Abenduaren 3an hotzez eta lainoa ezin altza zela jokatu behar izan zen Burunda Txirrindularitza antolatutako IV. Urdiaingo Ziklo-krosa. Hotzarengatik ezin mugituta erretiratu zenik egon zen.

Kadeteetan Aner Irizar (Zatika Goierrri) gailendu zen (31:35). Ibai Galarza urdiaindarra (Quesos Albeniz) hemeretzigarren sailkatu zen, 7:11ra. Emakumezkoetan Mirari Gotxi (Luyando-Ganzedo) izan zen lehena (29:46), eta Quesos Albenizko Eider Mazkiaran altsasuarra hamabigarren, 13:23ra. Juniorretan, Nahia Garciak (48:16) eta Arkaitz Susok (45:09). Quesos Albenizko Ekain Imaz olaztiarra zortzigarren sailkatu zen, 2:59ra, eta bere taldekide Iker Begiristain urdiaindarra 21. postuan, itzuli batera.

Emakumezkoen Open mailan Olatz Odriozolak ez zuen areririk izan (47:33). Aldiz, gizo-



Quesos Albeniz taldeko bi txirrindulari lasterketako une batean.

nezkoetan Gorka Izagirrek (Movistar Team) eta Aitor Hernandezek (Ermuko T.E.) lehia estua izan zuten. Azkenean ziordiarra gailendu zen (1:07:15), Hernandezi 45 segundo aterata. Sakana Group-Aleako Mikel Regil altsa-

suarra hamabigarren sartu zen (7:03ra). Master 30 mailan Gaizka Otxandorena izan zen finena (42:09), Master 40 mailan Patxi Cia (Faster Wear Team, 40:17), eta Master 50/60 mailan Gotzon Agirre (42:26).



Nafarroako pista selekzioa.

Martinez eta Perez, Pista Kopan

Aurreko astean Espainiako Pista Kopako bigarren saioa jokatu zen Galapagarren. Nafarroako selekzioarekin bi sakandarrek parte hartu zuten: kadeteetan Luca Martinezek (Aralar), eta juniorretan Ekaitz Perezek (Burunda). Junior mailan taldekako proban Nafarroa bigarren izan zen. Kadeteetan, Luca Martinez eta Javier Monreal bigarren sailkatu ziren Madison modalitatean, eta sailkapen orokorrean Martinez seigarren izan zen.



Altsasuk 18 talde eta 332 jokalaririk aurkeztu ditu

FUTBOLA Abenduaren 3an eta lainoan aurkeztu ziren Altsasu Kirol Elkarteko 2023/2024 denboraldiko futbol taldeak, Dantzalekun. Aurten Altsasuk hemezortzi talde izango ditu, aurrebenjaminetatik hasita Preferente maila bitartean, eta horietatik hiru talde emakumezkoenak dira. Guztira 332 futbolari ari dira trebatzen Altsasu futbol taldean, 30 entrenatzailearen

esanez. Toni Juarez da futbol taldeen koordinatzailea eta, aldi berean, Preferente mailako entrenatzailea. Aurtengo helburu nagusiak Liga Nazionaleko jubenilen taldeak mailari eustea, eta Preferente mailako taldea Lehen Maila Autonomikora igotzea da, emakumezkoen futbola sustatzea, neska-mutilak baloreetan janztea eta ongi pasatzea ahaztu gabe.



Txakurkroseko irteera oso azkarra izan zen. Txakurrak urduri zeuden.



Iluntzeko probak irudi ikusgarriak utzi zituen. NURIA GUBS

Goizean zein iluntzean, Txakurkrosa ikusgarri

TXAKUR-KROSA / MENDI LASTERKETAK Triku Trailek antolatutako kirolarien eta txakurren lasterketa larunbat iluntzean eta igande goizean jokatu zen. 100 partaide lehiatu ziren, eta pozik dago antolakuntza. Gazte Trailak borobildu zuen asteburu kirolzalea

Maidar Betelu Ganboa ETXARRI ARANATZ Triku Trail elkarteak Euskankrosekin elkarlanean antolatuta, asteburuan Etxarri Aranazko Txakurkrosa hartu zuen Etxarriko kanpinak, inguruko paraje zoragarrian jokatu zena. Hitzordu bikoitza izan zen: abenduaren 9an, iluntzean, scooter, bikejoring eta txakur-kros mo-

dalitateak jokatu ziren, distantzia laburragoan; eta abenduaren 10ean, goizez aritu ziren kirolariak eta euren txakurrak. Bai gauean eta baita goizean ere, parte hartzaileek gozatu ederra hartu zuten. Etxarriko kanpineko kirol asteburua larunbat goizean Triku Trailek Nafarroako Mendi Federazioarekin antola-

tutako Etxarri Aranazko Gazte Trailak borobildu zuen.

Etxarri Aranazko Txakurkrosa "oso ongi" joan zela adierazi dute antolakuntzatik. Iluntzeko probak ikusgarriak izan ziren, "xarma berezikoak", irudi bikainak utzi zituztenak. Goizeko probak ere ikusgarriak izan ziren, eguraldia lagun.

Urtasun, sakandar bakarra

Scooter edo patin proban txakurrak scooter edo patin antzeko bati lotuta doaz, eta ziztu bizian jokatzen da proba. Iluntzeko proban Labianoko David Neira gailendu zen, hirukote baten artean (12:04). 56 segundo gehiago behar izan zituen Sakanako parte hartzaile bakarrak, Juan Bautista Urtasun Perez urdiaindarrak (13:00). Hurrengo goizeko scooter proba, ordea, ezin izan zuen bukatu Urtasunek, txakurren batekin arazoak tarteke. Nolanahi ere, Espainiako Txapelketa prestatzen ari dela aipatu zuen Urtasunek, ilbeltzean pare bat proba dituela, eta gustura dabilela.

Gainontzeko modalitateak

Bikejoring edo txakurra bizikletari lotuta dagoen lasterketari

dagokionez, iluntzeko probak hamar partaide izan zituen eta Ekaitz Erauskin hondarribarra (8:58) eta Sant Pere De Ribeseko Marina Von Podolsky (16:26) izan ziren azkarrenak. Igandeko goizeko probak ere partaide berberak izan zituen, hamar kirolari, eta kasu honetan Iosu Varona donostiarra (13:11) gailendu zitzaion Ekaitz Erauskini (13:17). Emakumezko bakarra lehiatu zen, Marina Von Podolsky (22:58).

Txakur-kros modalitatea, korrikalaria txakurrari lotuta joaten dena, izan zen jendetsuena.

"KIROLARIEK ETXARRI ARANAZKO IBILBIDEA OSO GUSTUKO DUTE. HALA DIOTE, URTERO"
IGOR ARTIEDA

"Giro oso polita izan dugu asteburuan kanpinean"

IGOR ARTIEDA GALDEANO TRIKU TRAIL TALDEKO KIDEA

Triku Trail taldekoek asteburu betea izan zuten Etxarriko kanpinean, Etxarri Aranazko Gazte Traila eta Etxarri Aranazko Txakurkrosa zirela eta. Igor Artieda Galdeano, gainontzeko kideekin batera, buru belarri ibili da lanean.

Nola joan dira asteburuko hiru probak?

Bikain esatea agian gehiegixto da, beti dagoelako zer hobetu, baina asteburua oso ongi joan da. Ez da aparteko arazorik egon, giroa ederra izan da, eguraldi ona izan dugu, lokatza nahi adina eta gehiago... (kar-kar). Ongi, giro polita izan dugu.

Etxarri Aranazko Gazte Traila izan da nobedade nagusia, lehenengoz antolatu duzelako. Nola animatu zineten proba antolatzeraz?

Joan zen urtean Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioak Nafar Kirol Jokoen

barruan mendi lasterketa kopa bat antolatu zuen estraineko, hiru lasterketaz osatutako kopa. Kopa antolatu ahal izateko hiru lasterketa lotzea kosta egin zitzaion, proba horiek eskola ikasturtean izan behar direlako, hau da, urritik maiatza-ekaina hasiera bitartera. Guk Triku Traila ekainean antolatzen dugu, egutegi horretatik kanpo, eta federaziokoei esan genien Txakurkrosa abenduan antolatzen genuela, eskola ikasturte barruan, eta ez bazuten beste lasterketarik lotzen, prest geundekeela gazteen lasterketa hori hartzeko. Azkenean beste hiru proba lotu zituzten, baina 2023/2024 ikasturterako Triku Trailek proba horietako bat antolatzea proposatu zigun. Erronkari heldu genion, erronka zaila baina polita, eta ongi atera dela uste dugu.

Nafar Kirol Jokotako kategoriez ari garenez, ibilbide berriak prestatu behar izango zenituzten, Triku Traila 21 kilometroko lasterketa baita.

Triku Trailean oinarritutako hiru ibilbide edo zirkuitu markatu genituen Gazte Trailerako, hiru kategoriatan: infantilak, kadeteak eta gazteak. Hiru distantzia eta ibilbide ezberdin ziren (7 km, 8,1 km eta 11,4 km), baina hasiera amankomuna zuten. Ibilbideak bere zailtasunak bazituen, bidegurutze pare bat, kategoriatan bakoitzak bide ezberdina hartzeko, aldiak eta bestelakoak. Ongi joan zen.

Korrikalari kopuru polita animatu zen, ezta?

Bai, 42 korrikalari gazte hurbildu ziren Gazte Trailerako, gehienak Nafarroako Kirol Jokotako

Kopan parte hartzen ari direnak, baina baita Burgostik hurbildu ziren bost gazte eta Kantabriatik etorritako bi gazte, Gipuzkoatik eta Bizkaitik hurbildutakoekin batera. Eguraldiak lagundu zuen eta goiz ederra pasa zuten korrikalariak.

Lasterketa antolatzen jarraitzeko keinurik egin al dizue federazioak?

Printzipioz aurtengo lasterketa antolatzea eskatu digute; ez dakit proba iraunkortzeko asmorik duten. Aurrera begira, ez dakigu. Baina datu gisa, guraso dezentek komentatu ziguten normalean gaztetxoendako trailak lasterketa handi baten barruan txertatzen dituztela, eta gazteak "gonbidatu" gisa sentitzen direla; hau da, bigarren maila batean egoten direla, eta Etxarri, aldiz, gaztetxoak "protagonista" sentitu zirela. Izan ere, proba beraiendako zen. Ikusgarritasuna euren izan zen, eta gozatu zuten.

Gazteen Traila bukatu, eta Etxarri Aranazko Txakurkrosa hasi. Zer moduz joan ziren bi saioak?



Korrikalariak helmugan, euren txakurrei eskerrak ematen.

Larunbateko iluntzeko lasterketan 45 korrikalari sailkatu ziren, Eskoriatzako Josu Galvez (13:35) eta bere txakurra buru zirela. 37 segundo atera zizkioten Trapagako Aitor Portillori. Emakumezkoetan, Trapagako Sandra Jimenez eta bere txakurra gailendu ziren (15:56).

Igande goizeko Etxarri Aranazko Txakurkrosak partaide gehiago izan zituen, 77 guztira, baina bezperan bezala, Josu Galvezek lortu zuen garaipena (19:31), Oier Sanchez bilbotarraren aurretik (19:37). Emakumezkoetan, ordea, aldaketa egon zen. Lasterketa oso lehiatua, Olatz Zabala irundarrak (21:50) bezperako irabazle Sandra Jimenez irabaztea lortu zuen (21:56), 6 segundoko aldearekin.

Proben bukaeran, auzate ederraz gozatu zuten guztiak.



Bikejoring modalitateko helmuga.



Kirolariak azkar osatu zuten proba.

Etxarri, mendi korrikalarien harrobi

Abenduaren 9an I. Etxarri Aranazko Gazte Trail Mendi Lasterketa jokatu zen Etxarri Aranazko kanpinean. Triku Trailek antolatu zuen lasterketa, Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioarekin elkarlanean. Lasterketa Nafarroako Kirol Jokoen 2023/2024 Gazte Trail Txapelketako bigarren proba puntuagarria zen, Agoizko mendi lasterketaren atzetik. Hirugarren proba puntuagarria maiatzaren 5ean jokatu den Xtreme Higa Monreal izango da.

Guztira 42 korrikalari gaztek hartu zuten parte, infantilen mailan (7 km, 151 m+), kadeteen mailan (8,1 km, 330 m+) eta jubenilen mailan (11,4 km, 564 m+) banatuta. Triku Trailek ibilbide zoragarria prestatu zuen kanpinaren inguruan. Hasieran elkarrekin joan ziren hiru kategoriak, baina gero kategoria bakoitzak bere bidea hartu zuen, kanpinetako helmugara iritsi arte. Korrikalari gehienak nafarrak ziren, tartean zenbait sakandar, baina Gipuzkoatik, Bizkaitik, Kantabrietatik eta Burgostik ere hurbildu ziren zenbait korrikalari.

Maila ederra

Infantilen mailan gizonezkoetan Burgosko Lucas Gomez izan zen azkarrena (31:39). Ekhi Girado



Infantilen mailako nesken podiuma. TRIKU TRAIL

altsasuarra seigarren sailkatu zen (35:11) eta Aratz Mendoza altsasuarra zazpigarren (36:15). Emakumezkoetan Castro Urdialesetik hurbildutako Aitana De Valles izan zen txapelduna (36:47), Uxue Oiarbide tolosarrari ia 4 minutuko aldea aterata (40:26).

Kadeteen mailan gizonezkoetan Aratz Pardok irabazi zuen (42:29), Victor Fernandezi minutu eta erdi aterata (44:02). Aner Artieda etxarriarra hamaikagarren sailkatu zen (51:28), eta Jon

Orella etxarriarra hamabigarren (51:37). Emakumezkoetan Lide Etxarri gailendu zen (51:58), alde handiz. Saioa Cenozi 5 minutu pasa atera zizkion (51:58).

Gizonezkoen jubeniletan Peio Ziarsolo erreizidarra gailendu zen (57:38). Ia 4 minutu atera zizkion Eder Tapiari (1:02:00). Kimetz Arregi lakuntzarra hamargarren sailkatu zen (1:29:06). Emakumezkoetan Irati Sanchezek ez zuen areririk izan (1:13:21), eta Madi Lizarragari ordu erdi baino gehiago atera zion (1:47:21).

Larunbat iluntzekoa ikusgarria izan zen. Iaz argi gehixeago zegoen, ilargi bete baitezgoen eta lainorik ez. Aurten, aldiz, laino betean geunden. Ez zuen euririk egin, baina eguna oso iluna joan zen, eta gaua ere. Ibilbideko markak ikusten ziren, argiztagarriak zirelako, eta kirolariak frontala zeramaten, baina aipatu ziguten ibilbideko lurra ikusteko zailtasunak izan zituztela. Hala ere, gustura ibili ziren.

Ibilbidea gustukoa izan zuten?

Oso. Etxarri Aranazko ibilbidea oso polita da, hala esaten digute urtero partaide guztiak. Guztira ehun partaide izan ziren, bi probak kontuan hartuta. Askok iluntzean eta goizean errepikatu zuten.

Pozik zaudete partaidetza datuarekin?

Bai, txakur-krosarendako kopuru polita baita. Joan zen urtean 114 partaide izan genituen eta aurten 100, gutxiago, baina kontentu egon gaitzke, aurtengo txakur-kros probetan orokorrean izena ematean beherakada ematen ari delako. Gurea mantentzen dela esan daiteke, eta pozik gaude.



Partaide sakandar bakarra izan zen, Juan Bautista Urtasun Perez urdiaindarra, scooter modalitatean.

Bai, sakandar bakarra izan zen Juan Bautista, eta historikoa, gainera. Iluntzeko proban bere kategorian bigarren sailkatu zen, baina goizeko proba ezin izan zuen despiditu. Irteera baino lehen arazoak izan zituen bere txakurretako batekin, eta ezin izan zen sailkatu. Hala ere, oso kontentu zegoen. Juan Bautista disfrutatzen dator Etxarri Aranazko Txakurkrosara, lagundu ere egin izan digu aurreko prestaketetan, eta gustura zegoen. Eta gu berarekin, zer esanik ez.

Hurrengo urtean, gehiago.

Hasteko eta behin, aurtengo probaren balorazioa egingo dugu eta ondoren hartuko dugu erabakia.

Triku Trailekoak ez zarete aspertzen.

(Kar-kar) Hemen aspertzen ez dena gure burua da. Ideiak borborka izaten ditugu eta, aurrera!



Urbasako zikloturista martxa. ARTXIBOA

Aurten, San Silvestreko Urbasako Igoerarik gabe

TXIRRINDULARITZA

Federatutako proba baten baldintzak eskatzen dizkietenez, ezinezkoa zaie

Urtea lagunartean despeditzeko, bizikleta hartu, Urbasara igo, goian salda beroa edan, eta jaitsi. Horrela jaio zen Urbasako Igoera-San Silvestre Zikloturista Martxa. Joan zen urtean 28. edizioa izan zuen proba herrikoiak, eta 112 txirrindularik hartu zuten parte. Giro ederrean oroigarria jaso, eta urte berriagatik topa egin zuten.

Tamalez, aurten ez da urtea Urbasan bizikletan despeditzeko ekitaldirik izango. Arrazoi nagusia ekonomikoa da. "Urterik urtera geroz eta baldintza zorrotzagoak eskatzen dizkigute, gurea ohiko txirrindularitza lasterketa bat baillitza: federazio baimenak eta lasterketa tasa ordainketa, aseguruak, anbulantzia, medikua, foruzainak, bidegurutzeetarako boluntarioak, helmugako gune hesitua... Dirutza da, eta gurea proba xumea da. Ez dugu nahi parte hartzeagatik 20-25 euro kobratu behar izatea. Ez dugunez babeslerik aurkitu, zoritxarrez bertan behera utzi behar izan dugu aurtengoa" azaldu du Altsasu Kirol Elkarteke txirrindularitza ataleko ardura-dun Felix Mazkianek. Lasterketek eskatzen dizkieten eskakizunak gogortuz gero, elkartearen gainontzeko probak ere kolokan gera daitezkeela gaineratu du.



Korrikalariak ikusleen animoak eta berotasuna eskertu zituzten. Lehen bi emakumeek elkarrekin egin zuten ia lasterketa osoa.

Zubeztiak erakargarri izaten segitzen du

ATLETISMOA 42. Zubeztia Lasterketa-Candi Arnanz Memorialean 122 korrikalarik hartu zuten parte, giro ederrean. Unai Arroyo eta Izaskun Beunza izan ziren txapeldunak, eta Israel Arbizu bigarren sailkatu zen

Maidera Betelu Ganboa ALTSASU

Altsasuko Zubeztia elkarteak abenduaren 8an, Ama Birjinaren egunean, antolatzen duen lasterketa herrikoia korrikalariendako klasikoetako bat da, aurki urtea despeditzeko jokatu diren San Silvestreak prestatzeko ezinbestekoa. Aurtengoa 42. edizioa izan zen, eta fresko baina eguraldia lagun jokatu zen. Bigarren urtez Candi Arnanz Memoriale da, bere garaian korrikalari handia eta Altsasun atletismoaren sustatzaileetako bat izan zenaren omenez.

Korrikalariak herrigunean prestatutako zirkuituari lau itzuli eman behar izan zizkieten, gehi hasierako buelta, 400 metrokoa, guztira 10 km osatuz. 122 korrikalari agertu ziren irteerara, horietatik 15 emakume. Joan zen urtean 130 korrikalari izan ziren; beraz, erakargarri izaten jarraitzen du. Gehienak sakan-darrak ziren, baina Iruñetik, Arabatik eta Goierritik makina bat korrikalari animatu ziren.

Israel Arbizu, bigarrena

Lasterketa bizi-bizi atera zen. 400 metroko hasierako buelta osatzen azkarrena Idiazabalgo Xabier Sanchez izan zen, eta berak lortu zuen antolakuntzak oparitutako urdaiazpikoa. Baina Tolosako Unai Arroyok bereha-



Emakumezkoen podiuma. ZUBEZTIA



Gizonezkoen podiuma. ZUBEZTIA

la hartu zion aurrea, eta lasterketa ia guztia bakarrik egin zuen, garaipen erraza lortuaz (31:19). Bigarren Israel Arbizu etxarriarra izan zen (32:24), eta hirugarren Alberto Diaz gasteiztarra (32:37). Arroyo lehen aldiz aritu zen Zubeztian, eta gurasoek parte hartuko zutela probestuz hurbildu zen Altsasura. Lasterketa "oso polita eta animatua" iruditu zitzaion, "ibilbide osoan jendea" zegoelako. Lasterketa gogorra

egin zitzaioa aitortu zuen. Lehen altsasuarraren saria Aritz Etxeberriak jaso zuen, helmugan zortzigarren sartuta (33:23), eta Zubeztiako bazkideen saria Iban Sobredo "Triki"-rendako izan zen, helmugan hamalagarren (34:04).

Beunzaren enegarrena

Emakumezkoetan Izaskun Beunzak joan zen urteko eta beste zenbait urteetako garaipena

Sakandarrak

Gizonak

1. Unai Arroyo	31:19
2. Israel Arbizu	32:24
6. Mikel Astiz	33:01
8. Aritz Etxeberria	33:23
10. Sergio Garcia Eulate	33:54
12. Ekhi Congil	33:58
14. Ivan Sobredo	34:04
23. Juan Carlos Gomez	35:52
26. Aritz Munarriz	36:07
27. Gorka Acebes	36:10
30. Juan Luis Maiza	37:11
36. Eukeni Goikoetxea	37:59
37. Javi Gasanz	37:59
39. Ruben Garcia	38:11
42. Alvaro Rubio	38:51
44. Joseba Galarza	38:58
45. Jorge Iradi	39:07
57. Egoitz Aldaz	40:31
60. Alberto Arrizabalaga	40:51
61. Joxeja Maiza	41:06
62. Aitor Salinas	41:24
65. David F. De Garaialde	41:33
69. Xabier Borrega	42:32
75. Iñaki Berastegi	43:02
78. Iker Flores	43:14
79. Patxi Cano	43:14
80. Alain Iriarte	43:18
81. Iker Etxeberria	43:18
88. Mikel Senar	44:40
90. Peio Vergara	45:08
92. Ismael L. de Goikoetxea	45:15
100. Jose A. Salgado	46:56
103. Alberto Agirre	48:50
104. Juan C. Perez	48:50
105. Iñigo Orella	49:12
107. Aingeru Azazeta	49:48
114. Endika Ziordia	57:04

Emakumeak

31. Izaskun Beunza	37:18
97. Erkuden San Martin	45:56
106. Olatz Azazeta	49:48

* Maidera Ugarteburu eta Raul Audikana antolakuntzaren bukaerako zerrendan ageri dira, baina ez dute denborarik.

*Gorde zenbaki hau

berri-tu zuen. Lehia estua izan zuen Maria Ordoñez iruindarrarekin eta biak batera ibili ziren ia

lasterketa guztian zehar, baina azkenean olaztiarra gailendu zen (37:18), Ordoñezi 10 segundo aterata (37:28). Diana Vecillas gasteiztarra izan zen hirugarrena (39:44). Lehen altsasuarraren saria Olatz Azazetak jaso zuen, sailkapen absolutuan 106. (49:48). Izaskun Beunzak aitortu zuen Zubeztiako lasterketa "izugarri" gustuko duela eta egutegian markatuta izaten duela, "giro ederra" izaten delako, etengabe animatzen duten ikusle askorekin.





Eneko Lazkoz eta Julio Soto Nafarroako Bertsolari Txapelketaren buruz burukoan. JOSU SANTESTEBAN / NBE

Txapela janztea baino gehiago

Julio Soto da Nafarroako Bertsolari Txapelketako txapelduna, Eneko Lazkoz etxarriarekin buruz burukoan aritu ondoren hiru puntutan gailendu ondoren. Txapelketan "gehiago irabazi dut, galdu dudana baino" esan du Lazkozek

ETXARRI ARANATZ

2023ko Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finala jokatu zen abenduaren 2an Iruñeko Anaitasuna kiroldegian. 2.350 lagun elkartu ziren, inozko finalik jendetsuena. Zozketak erabakitako ordenean Joanes Illarregi Marzol, Josu Sanjurjo Altzuri, Saioa Alkaiza Guallar, Xabat Illarregi Marzol, Eneko Lazkoz Martinez, Saats Karasatorre Martinez, Sarai Robles Vitas eta Julio Soto Ezkurdia aritu ziren kantari. Ainhoa Larretxea Agirrek egin zituen aurkezle lanak, eta Ander Aranburu Arriola aritu zen gaiak ematen. Epaimahaia sei epailez osatuta zegoen: Aimar Sagastibeltza Caballero, Amaia Telletxea Larretxea, Joseba Beltza Bengoetxea etxarriarra, Mikel Beaumont Arizaleta, Nerea Bruño Artazkoz eta Saioa Mitxelena Irazoki.

Ekitaldiaren lehen zatian bost ariketetan aritu ziren zortzi finalistak: binaka zortziko handian, binaka zortziko txikian, binaka

puntu erantzunean, binaka hamarreko txikian, eta binaka barkarkako lanean. Ariketa horietan Lazkozek eta Sotok bildu zuten puntu gehien, eta haiek pasa ziren buruz burukora. Atal horretan, puntuka eta seiko motzean aritu ziren hasiera, eta ganbarako lanarekin bukatu zuten eguneko saio puntuagarria. Horren ostean iragarri zuten txapeldunaren izena; Julio Soto. Txapelketako bere hamaikagarren finalean bere ibilbidearen seigarren txapela irabazi du 1048,5 puntuekin. Eneko Lazkozek 1045,5 lortu zituen. Azken hamabi urteetan Nafarroako Bertsozale Elkarteko lehendakari izandako Alaitz Rekondok jantzi zion 2023ko Nafarroako Bertsolari Txapelketako irabaz-

ENEKO LAZKOZEK GEHIAGO DISFRUTATU DU, "POZ GEHIAGO SENTITZEN DUT NIGAN"

leari txapela. Soto eta Lazkozen ondoren, Xabat Illarregi (635,5), Joanes Illarregi (601), Saioa Alkaiza (594), Josu Sanjurjo (569,5), Saats Karasatorre (556) eta Sarai Robles (550,5) sailkatu ziren.

Txapeldunak "argi xamar" sentitu zela esan du *bertsoa.eus* atarirako egindako elkarrizketa batean. "Ez dut nahi nuen guztia egin, gorabeherak izan ditut", baina hasieratik bere burua argi ikusi zuela nabarmendu du. "Batzuetan gertatzen zaigu burua ez izatea horren argi. Nik ilusio hori neukan, oholtzan presente egotea bertsoa sortzerakoan; kontzentratuta". Bere helburua "presente" egotea zen, "hori bete dut eta pozik nago".

Zortzigarren finala zuen Eneko Lazkoz etxarriarrak, eta laugarren aldiz, "berriz", txapeldunorde gelditu da. "Baina aurreko aldian baino poz gehiago sentitzen dut nigan, finalean bertan askoz gehiago disfrutatu dudalako", adierazi du *bertsoa.eus*-en. Bertsoan ere "oso ongi" aritu zela

uste du: "Hor egotea ez delako erraza, eta berriz lortu dut. Nire kalkuluen arabera ez nuen hain txapelaren borrokan sartuta ikusten, eta penatxo hori dut erabaki batzuk ez nituelako hartu, txapela hain gertu nuela jakingo banu hartuko nituenak".

Eguerdian "plaza hutsik" ikusi zuen Lazkozek, "eta horrelako susto txiki bat eman dit hemen laugarren edo bosgarren urtea delako eta urtetik urtera oholtza geroz eta atzerago doa". Plaza oso bete zegoen eta entzuleak "hasieratik" oso esker onekoak izan zirela gaineratu du Lazkozek. "Saio on bat eta denon artean plaza oso ederra gelditu da". Lazkozek izena emateko "zalantza asko" izan zituela esan du, "iazko txapelketa nagusitik animoz nahiko jota gelditu nintzelako", eta txapelketa bati aurre egiteko

"indar dezente" behar delako: "Emozionalki ere indartsu egotea beharrezkoa da". Baina txapelketan "bide oso polita" egin duela uste du: "Bide hori guztia begiratuta uste dut gehiago irabazi dudala galdu dudana baino".

Lehenengo aldiz Nafarroako Bertsolari Txapelketa batean bi sakandar iritsi ziren finalera, Lazkoz bera eta Saats Karasatorre. Bere lehenengo finala jokatu zuen eta esperientzia "ederra" izan dela esan du *bertsoak.eus* atarian. "Uste dut nolabait orain arte egindako lanaren erakuslelhoa izan dela". Uste zuena baino lasaiago egon zen, "urdu-ruxeago egongo nintzela uste nuen, aurreko saioetan urduriago nengoen". Kokatzen asmatu zuela uste du, "igual teknikoki hobe aritu dira batzuk, oholtza handi baten gauza".



BAZTERRETIK

EKAIN ALEGRE GIL

Azken finean

Larunbat gaua da. Poteo luze baten ondoren erabaki duzue gaztetxera joatea, bertan kontzerturen bat omen dagoelako. Sarrerara heldu zaretenean bost euro eskatu dizkizue sartzeko: "bost euro kontzertu batengatik?" galdetu duzu harriduraz. Azkenean, ordaintzea erabaki duzu eta barrura sartu zara. Uste zenuena baino hobea izan da kontzertua eta euskarazko abesti propioak abestu arren, ongi pasatu duzu. "Nola deitzen da taldea?" galdetu diozu ondokoari, baina erantzuna jaso aurretik zure kuadrillak taberna batera doazela esan dizu.

Tabernara sartu zara eta sorpresa jaso duzu musika entzutean: euskarazkoak dira abestiak. Lehenengo Hertzainak, Kortatu gero, EH Sukarra... "ze arraroa!" pentsatu duzu, "ematen du ez dela azken 20 urteetan euskarazko abestirik egin"; baina azken finean, tabernak negozioak dira eta zertarako arriskatuko dira abesti berriak jartzen?

Beste taberna batera joatea erabaki duzue eta hemen jada

ez da euskarazko abestirik entzuten. Inoiz entzun ez duzun abesti bat jarri dute eta bertan dauden guztiek abestu dute ezezagun zaizun kantuarren estribilloa. Lagun bati galdetu diozu ea zein abesti den: "ez dakizu zein den? Atzo Bizarrapek atera duena da eta!" erantzun dizu berak. Badirudi erdarazko abestiek inoiz ere ez duela arriskatzeak, azken finean horiek dira jendeak entzuten dituenak, ez?

Hala ere, ez duzu egoera ulertzen: badaude musika berria (eta euskaraz) egiten dutenak, baina euskal abesti bati arrakasta iristen ez zaion arte (normalean irratan edo telebistan jartzen dutelako heltzen dena), ez omen da publiko orokorrak entzuteko modukoa; eta zergatik erdarazko abestietan ez da hain mantsoa bidea?

Dakizun gauza bakarra bihar Spotify-n betiko lau abestiak entzungo dituzula da; azken finean, zertarako entzungo duzu musika berria ez badio inork aukerarik ematen?



'Nafar Haziak' film dokumentalaren une bat. UTZITAKOA

Nafar sentimendua Argentinan

Iruñeko Ortzadar folklore taldeak Argentinan egindako bidaia oinarri hartuta, 'Nafar Haziak' film dokumentala sortu dute Izaskun Barber eta Rut Etxarte zinemagileek. Abenduaren 18an, astelehenean, lortia kultur gunean proiektatuko dute

E. R. B. ALTSASU

Iruñeko Ortzadar folklore taldeak dantza taldea, fanfarrea eta folkloreaken historia eta abar zabaltzen lan egiten duen elkarte bat da. Urteak daramatza Argentinara joaten. Bertan Nafar Etxeak bisitatzen dituzte eta euskal dantza tailerrak eta emaldiak ematen dituzte. "Aurten talde handiago bat, dantzari eta fanfarreari, bidaia egiteko proposatu zieten, eta proiektu handiagora zenez, dokumentatzeko eta bidaiari buruz dokumental bat sortzeko proiektua sortu zen", azaldu du Rut Etxarte *Nafar Haziak* film dokumentalaren egiletako batek. Izaskun Barberekin batera sortu dute lana, eta abenduaren 18an, astelehena, 19:00etan, lortia kultur gunean izanen dira film dokumentala proiektatzen eta aurkezten, Filmoteka Nafarroan programaren barruan. Sarrerak lortia kultur gunearen webgunean eta txarteldegian eros daitezke, euro batean.

Film dokumentala egiteko proposamena Barberri egin zioten, "Ortzadar kide ohia zelako. Berak ikusi zuen nahiko proiektu handia zela eta laguntza behar zuela, eta nirekin kontaktuan jarri zen". Barber eta Etxarte *Hamaika telebista* lanean aritu ziren elkarrekin, eta Etxarte baietz esan zion: "Aurretik ez nuen Ortzadar eza gutzen, ez nuen harremanik; niretako zentzu horretan erronka izan zen folkloreaken mundu horretan murgildu nintzelako". 40 pertonekin Argentinara bidaia egitea ere "izugarritzko erronka eta esperientzia" izan zen Etxarterendako.

Bidaia

Aurreko urteko azaroaren amaieran abiatu ziren Ortzadar elkarrekin kideak eta zinemagileak eta bertan hamazazpi egun pasa zituzten. Lau hiriburu bisitatu zituzten: Buenos Aires, Bolivar, Rosario eta Mendozan bukatu zuten bidaia, eta bertako Nafar Etxetan egon ziren. "Niretako

aurkikuntza harrigarria izan zen. Banekien Nafar eta Euskal Etxeak zeudela, baina harrigarriena izan zen ikustea eta bizitzea nola bizi duten gure kultura". Gutxi gora beherako "ideia" egin ahal zuen Etxarte, "baina ez nuen espero zer nolako intentsitatearekin bizi duten nafar sentimendua". Bertan aurkitutako errealitatea izan zen atentzioa gehien eman zion: "Nola diren gai hain urrundik eta arrotza duten sentimendu bat hain hurbil eta intentsitate handiarekin bizitzea".

Nafar Haziak dokumentalean agertzen den bezala, Nafar Etxetan "errealitate desberdinak" daude: "Batzuk tradizio handia dute eta bertara joan ziren nafa-

ARGENTINAKO NAFAR ETXETAKO ERREALITATEAK JASO DITUZTE 'NAFAR HAZIAK' LANEAN

rrek sortu zituzten, baina beste batzuk, Bolivarrekoa adibidez, berriak dira". Kideen artean nafar sustraiak dituztenak daude, "aiton-amonak edo gurasoak nafarrak zirela", eta nafar sentimendua belaunaldiz-belaunaldi jaso dute, "baina badira bestelako kasuak ere, Nafar Etxetara bestelako arrazoiengatik gerturatu direnak: gertu zutelako eta dantzak ikasi nahi zituztelako...". Kide horiek ez dituzte "inolako harremanik" Nafarroarekin, eta sentimendu "oso intentsoa" dutela esan du Etxarte: "Errealitate hori oso interesgarria iruditu zitzaidan, eta harritu ninduen". Ikus-entzunezkoak pare bat kasu agertzen dira.

Film dokumentala egiteko orduan Ortzadarreko Ander eta Nora izan dute bidelagun zinemagileek. "Proiektua koordinatu dute. Aurretik lau edo bost aldiz bidaiatu dute Argentinara eta Nafar Etxeak, jendea eta familiak ezagutzen dituzte. Laguntza handia eman ziguten nolabait kastina egiten". Argentinan egun gutxi zirela bazekiten, eta aurretik protagonistak nortzuk izango ziren zehaztea oso garrantzitsua izan zela esan du Etxarte. "Perfil eta istorio desberdinak nahi genituen; nafar sustraiak dituztenak eta ez dituztenak". Gero bertara iritsi zirenean, "bidaiaren erritmoa zela, plangintza zela, ezustekoak zirela...", aurretik prestatutako gidoia "zertxobait" moldatu behar izan zutelaz azaldu du; "baina hasierako ideia lortu genuen".

"Guk hasieratik oso argi genuen ez genuela nahi bakarrik bidaia baten laburpena jasotzea; dantza tailerren eta emanaldien laburpena. Hori badago, baina pisu gehiago eman diogu edo fokua jarri dugu Argentinan nafar sentimendua nola bizitzen duten erakustean". *Nafar Haziak* dokumentalaren helburura, beraz, sentimendu hori Nafarrora ekartzea zen.

Golem zinemetan mustu zuten *Nafar Haziak* dokumentala, urrian. "Bientzako lehenengo aldia zen horrelako proiektu handi batean parte hartzen". Aurkezpenaren aurretik "urdu-ri" zeudela aitortu du Etxarte. Publikoak erantzuten du, "jendea oso pozik ateratzen da, eta folkloreakekin harremana dutenak baita ez dutenak ere emozionatzen dira". Jendea Argentinako nafar sentimendurekin "hunkitzen" dela esan du Etxarte.

Erkuden Ruiz Barroso LAKUNTZA

Bidane gazteak erronka handi bat dauka: Aralarrean egiten den erromerian Blas astoa eta honen saskiko tripotak mendira igo beharko ditu, herritarrek gustura gosaldu ahal izateko; bidean, ordean, hainbat oztopo izanen ditu, mendiak berak ekartzen dituenak eta norberaren baitakoak. Astoaren putza! Garazi Otsagabia eta Iker Uribe lakuntzarrek sortu duten liburuaren sinopsia da. Lakuntzako Pertzaren kondaira oinarri hartuta "abentura" ipuin bat sortu dute, besteak beste, Sakanako haurrei kondaira gerturatzeko. Abenduan hiru aurkezpen eta ipuin kontaketa egingen dituzte: abenduaren 17an, igandea, 18:00etan, Lakuntzako kultur etxean; abenduaren 21ean, osteguna, 18:00etan, Irurtzungo Pikuxarren eta abenduaren 26an, asteartea, 12:00etan Altsasuko liburutegian. Egileek Lakuntzako Udalaren, Lakuntzako Pertzaren elkartearen eta Transportes Arregi eta Lakuntza Kalorgrupen laguntza eskertzen dute.

Nola sortu zen ipuina sortzeko ideia?

Garazi. Iaz lehenengo aldiz Lakuntzako Pertzaren egunera joan nintzen alaba txikiarekin. Guretako, lakuntzarrendako, oso egun berezia da, urteko egunik polita ez bada, gertu dago. Han nengoela pentsatu nuen oso polita izango litzatekeela horren inguruko ipuin bat izatea ohean goxo-goxo alabari kontatzeko. Hori bueltaka izan nuen hilabete batzuetan, eta pentsatu nuen nik ipuina idatz nezakeela, baina ni marrazteko desastre bat naizela. Nork egin zitzakeen marrazki horiek? Lakuntzar bat, marrazkilaria eta umeendako beste liburu batzuk egin dituen... Iker pentsatu nuen.

Iker. Sorpresa handia hartu nuen. Garazi ezagutzen nuen, baina ni baino gazteagoa da eta ez genuen harreman oso estua. Egund batean plazan zuzenean etorri zitzaidan eta komentatu zidan ipuin baterako ideia bat zuela. Ipuinaren nondik norakoak kontatu zidan, Lakuntzako Pertzaren inguruan zela... Lakuntzar bezala ezin izan nion ezetz esan. Istoria oso gustatu zitzaidan.

Nola izan da ipuina idaztea?

G. Irakurle amorratua naiz eta asko irakurri dut, txikitatik. Zerbait idatzi izan dut, baina gehienbat helduendako edo niretzat, inon argitaratu ez direnak. Baina esan nuen: pentsatuko dut niri



Iker Uribe eta Garazi Otsagabia 'Astoaren putza!' liburuaren egileak.

"Lakuntzako Pertzaren ipuina izatea polita zela uste nuen"

GARAZI OTSAGABIA ETA IKER URIBE IDAZLEA ETA ILUSTRATZAILEA

Aralarrera igo behar den astoaren kondairan oinarrituta 'Astoaren putza!' "abentura" liburua kaleratu dute; Bidane neskatoa eta Blas astoa dira protagonistak

zein ipuin irakurtzea gustatuko litzaidakeen, beti buruan txikitako irakurzaletasun hori izanik. Abentura ipuin bat egin nahi nuela argi nuen. Horrela hasi nintzen idazten. Bai nahi nuena ere ez zedin soilik kondairan oinarritutako ipuina eta listo, ez zedin soilik Lakuntzako umeendako izan daitekeen zerbaite. Gainera, kondaira bakarrik kontatuta berehala bukatzen da ipuina: astoa erori zen, tripotak erori ziren eta errotariari begietan eman zion, eta bukatu da. Magia pixka

bat sartzea erabaki nuen, baita umorea ere: herensugea sartu dugu... Kondairan oinarrituta dago, baina ez du kondaira kontatzen. Inor ez dezala haserretu. I. Ipuina irakurri nuenean ikusi nuen Lakuntzako Pertzatik

"KONDAIRA OINARRIAN DAGO, BAINA FIKZIOA DA; MOLDATU ETA OSATU DUGU"

harago zihoala, eta horrek engantxatu ninduen. Abentura dago, beste pertsonaia batzuk, fikzio puntu hori... Haurren begietatik ikusita engantxatuko du.

Zertan oinarritu zarete protagonistak sortzeko orduan?

G. Protagonista eraikitzerakoan nor izango zen imajinatzen hasi nintzenean argi izan nuen neska bat izango zela. Abentura liburuetan normalean mutilak izaten dira protagonistak eta nik neska bat imajinatu nuen.

Nolakoak izango zen? Ausarta, 8 eta 10 urte izango ditu, lakuntzarra eta autista. Horrela etorri zitzaidan burura. Irakas-

kuntzan lan egiten dut eta aniztasun horrekin lan egitea tokatzen zait. Argi nuen ipuinean sartu nahi nuen beste begirada bat aniztasunarena zela; beste balore batzuk ere transmitituko zuena.

I. Bidane protagonista bat da, eta bigarrena Blas astoa da. Indar handia du ere.


Kondaira ez ezik, zer kontatzen du?

G. Desberdina izatea izateko modu bat besterik ez dela. Hori da ipuinak transmititu nahi duen mezu nagusia. Ez dugu asko aurreratu nahi. Bestetik, herria eta ohiturak maitasuna dago ere kondairaren bitartez. Aralarren gertatzen den istorioa da, toki magiko bat, eta naturarekiko maitasuna agertzen da, baita animaliekiko maitasuna ere Blas astoaren bidez. Euskararen gaia ere jorratzen da. Astoak Blas izena du Blas Alegria euskalari lakuntzarraren omenez. Euskararen alde gauza asko egin zituen eta gerra garaian lan guztiak erre ziren eta galdu ziren. Lakuntzako Pertzaren inguruko kondaira idatzi zuen, eta horrekin lotuta jarri diogu Blas izena astoari. Martija de Jauregi agertuko da ere. Lekeitiotik Uharte Arakilera bizitzera joan zen XVI. mendean eta emagin eta sendalaria izanzen. Harrigarria da baina ez da oso ezaguna Sakanan; Miren Agur Meabek Itzulerak liburuan aipatzen du bere istorioa, eta idazlea Irurtzunen egon zenean ezagutu nuen nik. Liburuaren amaieran Blas Alegria eta Martija de Jauregi pertsonaien haurrei azaltzeko bi testu laburtxo jarri ditugu, gordeta gera dadin.

Zertan oinarritu zara marrazteko?

I. Ez dut modu berezi batean marraztu. Niri ateratzen zitzaidan bezala egin dut, eta oso kontuan izan dut Garaziren ikuspegia. Ideia batzuk berak esandakoak dira. Pertsonaia sortzeko berarekin hitz egin nuen eta

"BESTEAK BESTE, IPUINAK OHITUREKIKO ETA NATURAREKIKO MAITASUNA LANTZEN DU"



*Gorde zenbaki hau

bozeto batzuk egin nituen. Umore puntu hori eman nahi genion eta neskatoak, esaterako, ez ditu hortzik. Astoarekin oso argi zuen ehun koloretsua izan behar zuela gainetik, berez eramaten duenaren antzekoa.

Nolakoak izan da prozesua?

G. Ipuin bat idaztea erraza dirudi, baina hitz gutxitan gauza asko esan nahi dituzu, eta orrazte lan horretan Ikerrek asko lagundu dit. Hasierako ipuina txapa luzeagoa zen.

I. Garazik argi zuen haurrei bideratutako ipuin bat zela eta irudietan kontatua egon behar zela ere, eta badu bere fondoa ere. Pertsonai historikoak eta abar. Orduan, normala zen luzatzea. Lagundu diot ahal izan dudana guztian. Irudiak pisu handia du, eta berak ere asko lagundu dit irudietan. Gauza batzuk oso argi zituelako. Adibidez, Lakuntzako Pertzaren elkarte agertzea modu ez oso zuzenean bada ere, pikota agertzea...

G. Oreka hori mantentzea. Irudiek kristoren indarra dute eta istorioa sei urtetik aurrera irakurtzeko egokia bada ere, haur txikienek ere marrazkiak ikustia istorioa jarrai dezakete, eta horrek adin tartea zabaltzen du eta unibertsalagoa egiten du ere. Ez genuen bakarrik lakuntzarrandako ipuin bat izatea nahi, baina bai ume lakuntzarrek ikustea Lakuntza dela, identifikatzea. Beraiena zela sentitzea nahi genuen. Unibertsala baina bertakoa, oreka hori nola lortu, eta horretan aritu gara. Oso irudi deigarriak eta politikak daude. Bere irudiekin emozionatuta nago, eta uste dut haurrei gustatu behar zaiela pila bat.

Nolakoak izanen dira aurkezpenak?

I. Aurkezpenetan ipuinean agertzen diren ideiak aipatuko eta azalduko ditugu, eta haurrei ipuin kontaketa egiten diegu. Gogo dugu batez ere haurren erreakzioa ikusteko, baita helduena ere, izan ere, kondaira hor dago eta fikzioa dela aipatu nahi dugu.

G. Fikzioa da, kondaira moldatu, aldatu eta osatu dugu. Ez da kondaira bere horretan, baina kondaira hor dago.



Beñat Zelaia Barandiaran, Jon Kepa Bengoetxea Irigoien eta Joxe Mari Morcillo, atzean murala dagoen zubia.

"Elkartasuna adieraztea beharrezkoa da"

Trenbide geralekuko zubian Palestinaren aldeko murala zaharberitzen ari da altsasuar talde bat, haien artean daude Beñat Zelaia Barandiaran, Jon Kepa Bengoetxea Irigoien eta Joxe Mari Morcillo

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

1 Noiztik margolariak?

Beñat. Israelek genozidio bat hasi zuenetik, gutxi gora-behera. Horrek berotu gintuen horretan ere sartzeraz.

Joxe Mari. Zaharberitu dugu, baina zerbait berri dugu.

2 Sekula brotxarekin ibili zarete?

Jon Kepa. Bai baina, gutxi. Eskerrak Joxe Mari gurekin dabilen, zeren guk arte gutxi dugu brotxarekin.

B. Guk borondatea dugu, peoiak gara, baina artista bera da.

JM. Ez dakit ni zuzendari ona naizen; beraiek ederki ari dira.

3 Nolaz ekin zenioten muralari?

JM. Iker Uribe eta biok egin genuen, jende gehiagoren laguntzaz. Askapena talde internazionalistaren dei bati erantzunez egin genuen 2011n. Oso zahartuta zegoen. Israelek hasi duen genozidio horren ondoren Askapenaren deialdia jaso nuen: jendea prest zegoen garbitzeko.

Hala egin zuen talde batek, eta beste batzuk margotzeko elkar-tu gara.

4 Hasieratik zaudete?

B. Egoerak amorraturik, zerbait egin behar zela hitz egiten hasi ginen. Murala zahartzen zegoela ikusi genuen, eta aukera ona zen berritzea.

JK. Oker ez banago, duela hila-bete-edo garbitu zuten. Ordutik gabiltza. Baina euriarekin egia da ezin dugula lan asko egin: zubiak ur filtrazio handiak ditu

eta bustitakoa lehortzeko egunak behar dira.

JM. Batez ere hori da arazoa. 2011n, dirudienez, udan margo-tu genuen.

5 Zer irudi daude murallean?

B. Oraingo, gehienak mantendu ditugu: palestinar zapiarekin estalita dagoen pertsona, lurra eta askatasuna leloa, zulatutako eraikin batetik begira dauden bi ume... Ukitu berri batzuk ematen ari gara. Arabiarrez lurra eta askatasuna eta euskaraz gora palestinar erresistentzia idatzi dugu. Berrikuntza nagusia da Palestinako erresistentziako kidea jarri dugula.

JM. Haren aldamenen palestinarrak irudikatuko ditugu: orain dela 75 urte joan zirenak...

B. Mahmoud Darwish poeta palestinarren *Terrorista baten aitortpena* olerkiaren isla ere jasoko dugu.

JM. Testuak oso ongi irudikatzen du hainbeste urtetan jasaten ari diren zapalkuntza.

6 Irudi horiekin zer islatu nahi duzue?

JM. Hango jendearen eta mujahidinen erresistentzia.

7 Ahaztua izateko arriskuan zegoen gatazka bat zen. Altsasun eguneroko ikusi eta ohartu ere ez, ezta?

JK. Hori buruan genuen. Oldarraldi honek arazoaren muina ekarri digu burura. Horregatik, hori berritzera: herri sarreran berriz ere erakustea zer nolako garrantzia duen. Bestalde, muralaren eskuin aldean, Israelen okupazioaren maparen eguneraketa egin dugu. Lehen 2012ra arte zegoen, orain 2020ra arte: Gaza are eta txikiago eta Zisjordanian

kolonoen irlatxo gehiago daude. Orain oldarraldi handia izan da, baina azken hamar urteetan egoerak okerrera egin du. Hori murallean islatzen da.



*Gorde zenbaki hau

8 Zenbatek osatzen duzue taldea?

B. Guk pixka bat mugitu dugu, baina jende askok erantzun du. Gainera, margotzen ari ginen bitartean jendeak eskerrak ematen zituen. Ikusten da jendea gaiarekin kontzientziatuta dagoela.

9 Gastuei aurre egiteko, zer?

JM. Gazte hauek espraiak erosi zituzten. Kuadrilla batek botea eman digu. Nire kuadrillakoen laguntzaren zain nago ere. Nik, normalean, pintura izaten dut. Bestetik, Arbizuko Utzubar Ekogunera joan nintzen han jasota zituzten pinturak hartzera, gustu handiz eman zizkidaten.

10 Murala bukatu ondoren, zer?

JK. Askapenak Palestina Askatzeko Fronteko Europako arduraduna ekarri zuen Altsasura abenduaren 5ean. Orduan mustutze txiki bat egin nahi genuen. Baina ezinezkoa zen, dugun lan zamagatik eta eguraldiagatik. Aurrera begira, lasaitasunez, eguraldi ona heldu denean, badugu lana eta gogoak hori txukuntzeko.

11 Lagundu nahi duenak?

B. Muralarekin lana egon da. Palestinarekiko elkartasuna adierazteko garaiak bada-toz. Halako ekimenetan parte hartzea beharrezkoa da, elkartasun hori adieraztea.

EZAGUTU GURE IDEIEN EZTANDA

gk
DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA
of

619 821 436 | info@gkomunikazioa.eus | Foru plaza, 23-1. Altsasu